

KEREXETA

**ORBELAK
BITARGI
YDAZKEN**

465 13037

Euskal-liburutegirako,

aurveta 'Jar-jain'k.

Guinea, 1980-VII-18



Euskal Biblioteka Labayru



1012086

LITERATURA / N. 1801

ORBELAK
BITARGI
UDAZKEN

KEREXETA'TAR JAIME

**ORBELAK
BITARGI
YDÄZKEN**



**EDITORIAL
"LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA"
BILBO
1980**

VERSION CASTELLANA REVISADA

por

LUIS DE CASTRESANA

La entraña misma de la Poesía radica sustancialmente, por definición, en la identidad y vivencia de sus palabras originales; y una traducción no puede nunca transmitir la belleza, la expresividad y el calor de unos versos sentidos y expresados en lengua euskérica. Las versiones castellanas de estos poemas no tienen más misión que la de ayudar al lector no euskaldún y sirven tan sólo, en definitiva, como una mera aproximación a los versos originales.

EZ DAGO ERAGOZPENIK:

Elxenagusia'tar Karmelo,
Eliz-aztertzailea.

IMPRIMATUR:

Larrea'tar Koldobika M.,
Bilbo'k Gotzaiña,
Bilbo'n, 1980, Urtarrillak 14.

© Kerexeta'tar Jaime.

San Roque, 24.
Elorrio (Bizkaia).

ARGITARATZAILLE:

"La Gran Enciclopedia Vasca".
Calzadas de Mallona, 8, 2.º.
Bilbao-6.

ISBN: 84-248-0595 - X.

Depósito Legal: VI 326-1980.


IPAR-LANTEGIA:

"Gráficas Esel".
Apartado 86.
Gasteiz (Vitoria).

ORBELAK: Hojas caídas.

BITARGI: Ratos de serenidad en días lluviosos.

UDAZKEN: Otoño.



ORBELAK

(1.º argitarapena: 1959
1.ª edición: 1959)



IZADIKOAK

(DE LA NATURALEZA)

NOK JAKIN?

Esatekorik ez dot.
Zerbait bai mendietaz,
zerbait areiztietaz...
Zer, ostera, itsasoaz?

Itandu arraintxoai,
ta beingoan urpetu;
itandu olatuai,
ta arkaizetan apurtu;

itandu bitsai bere,
ta berez ezereztu...
Itsasoko sakona
ezin dauzkat argitu.

Aren ostera doa
eguzkia arratsoro,
baita illargia bere
aste ontan goizoro.

Ezertxo ez diñok ik,
itsasoko barne urdin?
Ezer ba'ete-yakik
artizarrak? Nok jakin?

¿QUIEN SABE?

No tengo nada de qué hablar.
Aunque algo sí acerca de los montes
y de los robledales...
Pero del mar, ¿qué?

Pregunta a sus peces,
y se zambullirán al momento;
pregunta a sus olas,
y se romperán en las rocas;

pregunta a su espuma,
y se esfumará...
No puedo esclarecerte nada
acerca de la profundidad del mar.

Detrás de él se esconde
todas las tardes el sol,
y también la luna todas las mañanas
en esta semana.

¿No dices nada tú,
interior azul del mar?
¿Sabrá tal vez algo
el lucero de la mañana? ¿Quién sabe?

EGUNA TA GAUA

Artizarra agertzen danean,
igesi doa gau illuna;
ta ba-dakust laster Anboto'n
Izar Nausiaren atz leuna.

Beraren diztira gorriakak
berantza datoz Memaia'tik,
gau-txoriak uxatu naiez,
begi lo-zaleok bizturik.

Gau-garaille dogun argia
ba-dator guztia biztera,
indar bizia zabaltzera.
Noiz arte beraren gurenda?

Arratseko izar diztikorrak
iges-bidea darakutso;
barriz euzkiak goi-gorena
Ezkubaratz'i joko daitso.

Beste gau bat lurraren jabe;
itzala gauaren zaindari.
Anboto'ko Dama zuriaz
neskatotxoak ameslari...

EL DIA Y LA NOCHE

Cuando aparece el lucero de la mañana,
huye veloz la negra noche;
y pronto aparece en Anboto
el suave rastro del astro rey.

Sus dorados rayos
vienen hacia abajo por Memaia,
queriendo ahuyentar a los pájaros nocturnos
y reanimar nuestros ojos aficionados a dormir.

La luz, que es triunfadora de la noche,
viene a resucitarlo todo,
a esparcir fuerza vivificante.
¿Hasta cuándo durará su victoria?

La brillante estrella del atardecer
le enseña el camino de la huida;
y, de nuevo, el sol se ocultará
por la parte más alta de (la peña) de Ezkubaratz.

Otra noche dueño de la tierra;
la oscuridad, centinela de la noche.
Mientras, las muchachitas sueñan
con la Dama de Anboto...

EGO-AIZEA

Udagoiez, Ego-aizea
dogu aizeetan jabe:
giro epelez, berantz datoz
orbelak ardura gabe.

Umeak —bizitzaren poza—
orbel-artean olgetan;
nagusiak, barriz, urduri
irearen arduratan.

Argiaren begian doaz
gure mutillak txistuka;
idien adoregarriztat
burdi utsaren kurrinka.

Illargia ta Zoriona
basoko bidearen zain;
Kiñarroio-ondoan irea
gazte areintzat gura lain.

Urrez iratzak Ego-aizez;
ez da faltauko naparra;
ogiarene eske ausika
egun-erdian txakurra.

Egoiak dauan euri-miñaz,
lainoa dator gabean;
gazteen iratza gorriakak
urak busti dauz basoan.

Egoi-aizeaz dan eguna
gurekin giro garbia;
agur dagiskun arratsean
illunaldean euria.

EL VIENTO SUR

En otoño tenemos al viento sur
como dueño entre los vientos;
lleno de una atmósfera templada,
las hojas secas caen al suelo sin ningún cuidado.

Los niños —alegría de la vida—
juegan entre las hojas muertas;
y los mayores están inquietos
al cuidado del helecho.

Al amanecer, pasan
nuestros chicarrones silbando;
para infundirles ardor a los bueyes,
va chirriando el carro vacío.

La luna y la Felicidad
cuidan el camino del bosque;
junto (al monte) Kiñarroio
hay abundante helecho para aquellos jóvenes.

Los helechos están dorados con el viento sur;
no ha de faltar el vino nabarro;
el perro ladrando al mediodía
pidiendo pan.

La nostalgia de lluvia que tiene el viento sur
la trae la niebla por la noche;
los rojizos helechos de los jóvenes
los ha mojado el agua en el monte.

El día en que sopla el viento sur,
tenemos tiempo limpio;
la tarde en que se despide de nosotros,
llovía al anochecer.

IPAR-AIZEA

"Ainbatek itz dagitsugu
udako arratsetan,
beroaz egon eziñik
larri gagozanean.

Zatoz laster, Ipar-aize,
zeure mosuz baturik;
zerbait otzitu gogizuz
bero au aldendurik".

Baiña negu-biotzean
beste bat da leoa:
"Zoaz arin, Ipar-aize,
geugaz daigun beroa.

Zuk ateak izten dozuz,
Erio dirudizu
azurrok dardaraka itziz...
Sua bearko biztu".

Umeak, barriz, diñoe:
"Bideak zuriz doguz
gizonkillak egiteko;
zugatzak, barriz, mamuz.

Zagoz gugaz, Ipar-aize;
zeurekin da edurra,
ortzian ikusi arte
euzkiaren muturra".

Edurra ta Ipar-aizea
iges doaz mendira.
"Zagoz or geldu, Ipar-aize,
udararte begira".

EL VIENTO NORTE

"Muchos te hablamos
en las tardes de verano.
cuando nos sentimos angustiados
por el exceso de calor.

Ven pronto, viento norte,
envolviéndonos en tu abrazo,
refrescándonos un poco,
alejándonos este calor".

Pero en pleno invierno
otra es nuestra cantinela:
"Vete pronto, viento norte,
para que tengamos calor.

Tú nos cierras las puertas de casa,
y pareces la Muerte,
dejando temblando nuestros huesos...
Nos vemos precisados a encender el fuego".

Sin embargo, los niños dicen:
"Tenemos blancos los caminos
para hacer muñecos de nieve,
y los árboles llenos de fantasmas.

Quédate con nosotros, viento norte,
porque contigo está la nieve,
hasta ver en el firmamento
el rostro del sol".

La nieve y el viento norte
huyen al monte.
"Estate ahí, viento norte,
esperando hasta que llegue el verano".

UDAGOI - GAU BATEZ

Begira nago
urrilgo illargitan;
begira nago
illargi betetan.

Txir-txir egoez
txitxarra ortuan;
bera dot lagun,
ta amesak buruan.

Lats-ur gardenak
diz-diz, mur-mur dagi;
bertan zakustaz,
Goi-andera, illargi.

Goiz-aize meea
lotan areitzetan...
Agur dagitsut,
bake, gau onetan!

Udaquen-gau
—isilla lerdoian—:
zenbat egipen,
barrez, dakusuzan!

Argia goian
odeiakaz mosuz,
ta lats-ertzetan
tantaiak mamuz.

Onako baten,
agur dagist, lotan,
irribarreak
nire ezpan onetan:

gogo nasai au
datza nire baitan,
pozaren-pozez
ames bigunetan!

EN UNA NOCHE DE OTOÑO

Estoy mirando
a la luz de la luna de octubre;
estoy mirando
en plenilunio.

La cigarra canta con las alas
en el huerto;
a ella la tengo de compañera,
y ensueños en la mente.

El agua transparente del arroyo
brilla y murmura;
en ella te veo,
Señora de lo alto, Luna.

La suave brisa de la mañana
duerme en los robles.
Te saludo, ¡oh paz!,
en esta noche.

Noche de otoño
—silencio en el pinar—:
¡cuántas cosas contemplas
riéndote!

La luz (de la luna)
anda a besos con las nubes,
y en las esquinas del riachuelo
los árboles bravíos están llenos de fantasmas nocturnos.

De pronto,
la sonrisa me brota,
mientras dormito,
en los labios:

mi tranquilo espíritu
descansa dentro de mí,
lleno de gozo,
en suaves ensueños.

NEGURAKO DEIA

Joan gura zeuke, gazte,
Urkiola-barreneko
gure basetxe zurira?
Nire amesak arako!

Ez dot edurren bildurrik
negu latza ba'dadi be:
kortan egurra zenbat lain
erretoko eten bage.

Ainbat janari kutxetan:
ario, gari, baba, zer-nai...
Iru beien esne ona,
ogei ardiren eun gaztai.

Oilloak bere ba-doguz;
oillaskoak kukurruka;
gaztaiñak ganbaran; "Zuri",
danon atezain, aausika.

Bazkalondoan intxaurrak
ezti gozoaz batera;
ta barrua berotzeko
txakoliña mai-gaiñean.

Egingo doguz —oba ez!—
txirristak edur-gaiñean,
gizonkil bildurgarriak
ta "gurutzeak" edurtzan...

Alan nequa igarorik,
barriz Memari-altzora;
udabarriz egokien
"Elizburu"-oiñetxera.

Ta orain..., nirekin joan
nai ete-zeuke nequan
Urkiola-barrenera?
Baietza dozu mosuan!

INVITACION PARA EL INVIERNO

¿Quisieras ir, joven,
a nuestro blanco caserío
al pie de Urkiola?
¡Qué ilusiones las mías para ir allá!

No tengo miedo a las nieves
aunque sea un invierno crudo,
porque hay leña abundante en la cuadra
para encender un fuego inagotable.

Además hay comida en las arcas:
maíz, trigo, alubia, lo que se quiera...
buena leche de tres vacas
y cien quesos de veinte ovejas.

También tenemos gallinas,
pollos haciendo "kukurrukú",
castañas en el camarote,
y el perro "Zuri", como portero de todos, para ladrar.

Nueces para después de las comidas,
juntamente con la dulce miel;
y el txakolí encima de la mesa
para calentar nuestro interior.

También esquicaremos —¡cómo no!—
encima de la nieve,
y haremos temibles muñecos
y "cruces" en la nevada...

Pasando así el invierno,
vendríamos de nuevo a las faldas de Memaiá:
porque en primavera donde mejor se está
es en la casa solariega de "Elizburu".

Y ahora..., ¿quisieras ir conmigo en invierno
al pie de Urkiola?
Tu rostro
me dice que sí.

EDURTZAN

Edurrez dagoz mendiak
—ortzia dagon oztin!—;
edurrez dagoz mendiak
Gorbea baizen bardin.

Illargi-eguzkiak
zeruan egun on;
eta aizea, non-ete?
A pozik Anboto'n:

Anboto'ko Damea'gaz
kontu-kontari biak.
Zer dagie barriketam
utsezko andra arriñak?

Aldape'ko bidetik
txakur baltz bat doa;
aren zaunka garratzez
biztu da basoa.

Erbi batek ostu dauiso
—erbi aren usaiña!—
bere gogo zintzoa ta
biotz prestu-bikaiña.

Etxeko egalean
txindor bat ikaraz;
euzkitan egonarren
egon ezin otzaz.

Edurrez dagoz mendiak
—ortzia dagon oztin!—;
edurrez dagoz mendiak
Gorbea baizen bardin.

EN LA NEVADA

Los montes están de nieve
—¡qué azul el cielo!—;
los montes están de nieve
igual que el Gorbea.

La luna y el sol
en el cielo: buen tiempo;
y el viento, ¿dónde?
El viento contento en Anboto:

con la Dama de Anboto
contando cuentos los dos.
¿Qué dirán, charla que te charla,
el Viento y la Dama?

Por el camino de Aldape
va un perro negro;
con sus agrios ladridos
se ha reanimado el bosque.

Es que una liebre
—¡qué olor el de aquella liebre!—
le ha robado su sano deseo
y su presto y leal corazón.

En el alero del tejado
un petirrojo está temblando;
y, a pesar de que luce el sol,
no puede tenerse de frío.

Los montes están de nieve
—¡qué azul el cielo!—;
los montes están de nieve
igual que el Gorbea.

UDABARRIAN

Euzki epela datorkit
begiok agurtzen;
otzez neukazan, bildurrez,
ezkutuan emen.

Ba-dabiz, pozik, umeak
saltoka zelaian:
eurenak dira liliak
esku samurretan.

Pio-pioka txindorra
baratz-zugatzetan,
birigarroa areiztiam
arrats-apalean.

Bedar barria ba-dator
zelai zabalean;
Izadia jantzi barriz
zugatz-orrietan.

Guztia danez bizia,
poz ta askatasuna,
zagoz betiko gurekin,
zorlon biguna!

EN LA PRIMAVERA


El tibio sol
viene saludándome estos ojos;
los tenía escondidos aquí,
de frío, de miedo.

Los niños han comenzado a saltar
alegremente en la pradera:
para ellos son las flores
en sus blandas manos.

El petirrojo canta
en los árboles del huerto,
y el malviz en el robledal
al caer de la tarde.

Viene también la nueva hierba
en la verde pradera,
y la Naturaleza se ha vestido renovada
en las hojas de los árboles.

Puesto que todo es vida,
alegría y libertad,
¡quédate siempre con nosotros,
tierna felicidad!



MAITEZKOAK

(AMATORIAS)

ZURE AGURRA

Ikusten nozunean
agur dagistazu;
ez zaitudala maite
ondotxo dakizu.

Nik ikararik bere ez
begi urdin onei,
neugandu ez daiezan
zure biok larrei.

Ez, ba: nik ez dot gura
niretzat biotzik.
Zer esango, bestela,
Amatxo'k zerutik?

Zeure gogoan nai dot
gutziz irabazi,
eskiñi dagiodan
zeruko Amari.

.....
Ikusten nozunean,
agur dagistazu;
aurrerantzean bere,
agur egistazul

TU SALUDO

Cuando me ves,
me saludas;
pero ya sabes bien
que yo no te amo.

Ni siquiera muevo
estos ojos azules,
para que no atraiga
demasiado los tuyos.

Pues no : no quiero
corazones para mí;
¿qué diría, si no,
la Madre desde el cielo?

Quiero conquistar
totalmente tu alma,
para ofrecérsela
a la Madre celestial.

.....
Cuando me ves,
me saludas;
;salúdame también
en adelante!

ZURE ONDOAN

Ez da bearrezkoa
miñez itz egitea.
Ez dozu esanenik?
Elduko yatzu unea.

Ta bitartean, gazte,
zagoz nire ondoan;
itzaren pare dogu
ba'zaukadaz aldean.

Nagon zuri begira,
ta niri begira zu:
zure irribarre ezlia
itzik onena dozu.

Alkar urrean egon...
bizitzan zoriotsul
Betiko gaztaroa,
osasuna eta zui

JUNTO A TI

No es necesario
que hables con la lengua.
¿No tienes nada que decir?
Ya te llegará la ocasión.

Y mientras tanto, joven,
estáte a mi lado;
es igual que hablar
el que estés conmigo.

Esté yo mirándote
y tú mirándome:
tu dulce sonrisa
es tu mejor palabra.

Estar los dos cerca...
¡qué felices en la vida!
¡Una eterna juventud,
salud y tú!

URKI-ARTEAN

Zu ba-zabiz barriro be
urki-arteana beti lez:
zetan eta zer billatzen?
Urki-arteana arratsez...

Esaidazu: Giz-abestiz,
ala zugazti-eresiz?

Zindoak dira pagoak
—neurea ba'litiz indar al—;
ta zu lakoa non ete?
Gogoa dozun zindoal

Ta zuk jarrai zeureari;
zadiz urki-maitagarri!

Esaidazu: Zer dakazu
urki-arteana, keizpeana,
oi meok oldei-gañeana,
orren legunki berbetan?

Lizardi'ren olerki-min
ete-zara, begi-urdirin?

Golz-oztargi zurizkari
ozkorri-apa dario;
zure ago ezti orrek,
gazte, zerixo ete-diño?

Ea, bada, esaidazu:
Zer, baiña, zer galdu dozu?

Urki-arteana luzaro,
zer da idoro nai dozuna?
Ba-dakit: Bakartasuna...
—Ez! Galdu dan maitasuna!

ENTRE ABEDULES

Tú pasas nuevámente
entre abedules:
¿a qué vas y qué buscas?
Entre abedules al anochecer...

Dime: ¿Tarareas cánciones humanas,
o modulas melodías nemorasas?

Las hayas están muy robustas
—ay, si su fuerza fuese mía—;
¿y dónde hay otra igual a ti?
¡Cuán sano tienes el espíritu!

Tú continúa siendo tú:
¡sé el hada de los abedules!

Dime: ¿Qué traes
entre abedules, a la sombra,
con gráciles pies sobre el musgo,
murmurando tan dulcemente?

¿Añoras tal vez la poesía de Lizardi,
tú, la de los ojos garzos?

Besos de arrebol esparce
la pálida claridad matutina;
y esa tu dulce boca,
joven, ¿qué es lo que dice?

Ea, pues, dímelo,
dímelo: ¿qué has perdido?

Por largo tiempo entre abedules,
¿qué es lo que ansías encontrar?
Ya sé: la soledad...

Y tú respondes: —¡No! ¡El amor que he perdido!

AGUR-IZARRAK

Goizalde, gau illun,
gau illuna azkenetan.
Argiaren atz leuna
ba-dator ozertzean.

Goian izarrak agur,
kiñuka, agur dagiste;
beean, ler-adarpean,
bik maiteki itz dagie.

Bata ule gorrizkea,
gorri-gorri ezpanak,
irribarrez matrailak,
artizar bi begiak...

Aren ondoan norbait...
aingeru lez garbia,
itsas-aizez arnasa,
goizak baizen ezta.

Bertan biak soil-soillik
—eurak, lerrak eta izarrak—,
izketan amaibaga
zorion-maitasunak.

Gero, alkarri barrez,
banandu dira agurrez:
irutan baietz, ezetz,
ta milla agur biotzez.

Nok esan legikean
arein bien agurra?
Maitatzailleak soillik
arein agur gartsua.

Goian izarrak agur;
beeko izar biak agur.
"Nik ba-dut maiteño bat"
gazte bi arekan ur.

LAS ESTRELLAS DEL ADIOS

Al amanecer, la negra noche
está agonizando.
El blando rastro de la luz
ya aparece en el horizonte.

Arriba, las estrellas, guiñándome,
me hacen adiós;
abajo, bajo ramas de pino,
dos personas hablan amorosamente.

La una es de pelos rubios,
tiene labios rojísimos,
mejillas llenas de sonrisas,
dos luceros por ojos...

Y a su lado, algún otro...
limpio como un ángel,
con aliento de brisa de mar,
dulce como las mañanas.

Están ellos dos solos
—ellos, los pinos y las estrellas—,
hablando sin fin
de amores felices.

Después, sonriéndose mutuamente,
se han separado con un adiós:
tres veces que sí, que no,
y mil cordiales "agur, agur".

¿Quién sabría decir
el adiós de aquellos dos?
Solamente los enamorados podrían comprender
el "agur" gozoso de aquellos dos.

Arriba, las estrellas se despiden;
también las dos estrellas de abajo.
La canción "Nik ba-dut maiteño bat"
está cerca de estos dos jóvenes.

EZPAIA

Neugana zentozan;
zetan ez nekian;
zetan ez nekian;
baiña ba-zentozan.

Zu izketan nirekin
ta nik ezin egin
—biotza taupaka—,
nik erantzun ezin.

Zure itz gori areik,
maitez apainduak,
nire biotzean
dardai mee, zorrotzak.

Kukua mutua,
mutua neguan;
neu be bardin nintzan
an zure aurrean.

Zer ziñostan, gazte?
Zu izketan, ni isilik.
Geuk dakigu dana,
geuk ta zugatz areik.

Ta aldendu zintzazan,
aldendu agurka;
ta urrindu ondoren,
ni pozez barrezka.

Zu niri begira
—biotzaren pozal—,
ni zuri begira...
—Ego-aize otsa—.

LA DUDA

Venías donde mí;
no sabía a qué;
no sabía a qué,
pero venías.

Tú estabas hablando conmigo,
pero yo no podía hacerlo
—el corazón temblando—,
no podía responderte.

Tus apasionadas palabras,
adornadas de amor,
eran dardos finos y afilados
en mi corazón.

El cuclillo suele estar mudo,
mudo en invierno;
así estaba yo allí,
delante de ti.

¿Qué me decías, joven?
Tú hablabas, yo callaba.
Nosotros dos sabemos todo,
nosotros y aquellos árboles.

Y te separaste,
te alejaste haciéndome adiós;
y, ya lejos de mí,
yo quedé riendo de gozo.

Tú mirándome
—¡qué alegría la de mi corazón!—,
y yo mirándote
—se oía el rumor del viento sur—.

MAITATZAILLE - ARTEAN

—Agur, Asier; nora oa?
—Ni? Arrats ontan, lertxundira.
An yoat Xabier laguna
aspaldian nire begira.

—Agur, Begoña; nora oa?
—Ni? Lertxundiko baratzera,
Amaia nire lagunari
ipuin gozoak esatera.

Neroni ba-dirautsat orain:
Nora noa amesez beterik?
Nora... Nondik natorren dakit:
lertxundiko gerizpetatik!

ENTRE ENAMORADOS

—Hola, Asier; ¿a dónde vas?
—¿Yo? Esta tarde, a la alameda.
Allí tengo a mi amigo Xabier
esperándome hace tiempo.

—Hola, Begoña; ¿a dónde vas?
—¿Yo? Al huerto de la alameda,
a contarle sabrosos cuentos
a mi amiga Amaia.

Y ahora me digo a mí mismo:
¿A dónde voy yo lleno de ensueños?
A dónde... Sólo sé de dónde vengo:
¡de la sombra de la alameda!

BEGI BATZUI

Zure begi ederrok
zertxobait esan gura dauste;
zure begi ederrok,
baltzizkok, ia galdu naue.

Ispillu garbiotan
argiro dakust eguzkia;
ta orrexeik dakarste,
egunez bere, ozkarbia.

Orain, inoiz ez-eta,
oraintxe, leenengoz, nazabe;
orain, inoiz ez-eta,
nire buru illun au dargiste.

Agua isilik dozu,
isilik; baiña... begi orreik?
Agur dagiste edonon:
zure aurrean ta bakarrik.

Zure lako izarño bi,
nok eroan daitez aldean?
Zure lako izarño bi,
nok eroan leitez ondoan?

A UNOS OJOS

Tus hermosos ojos desean decirme algo;
tus hermosos ojos,
ojos negruzcos,
casi me han perdido.

En esos relucientes espejos
veo claramente el sol;
y eso son para mí,
aun de día: el cielo sereno.

Ahora (y nunca anteriormente)
me han conocido por primera vez;
ahora (y nunca anteriormente)
alumbran mi triste ser.

Tu boca está cerrada,
callando; pero, ¿tus ojos?
Me saludan en todas partes:
tanto cuando tú estás como cuando estoy solo.

¿Quién puede llevar consigo
dos estrellas como las tuyas?
¿Quién podría llevar junto a sí
dos estrellitas como las tuyas?

EZ NEBAN JAKIN

Bakarrik, oiñak arin,
eguzkia aurpegian,
izar bi begietan,
alaitasunez yoian

Batzutan gorantz, Oiz'era,
bestetan beerantz begira...

Nok esango eustan, nok,
gazte alai a nor zan?
Aurreko pagoari
itandu neutsan, landan.

Txistik bagarik zubilla:
beretzat eban isilla.

Euzki-diztirak ziran
aren urrezko uleak;
bedardi ta landetan
izarño bi begiak.

Ta zer zan bere gogoa?
Ezin ikusi barrua!

Soiñurik bigunena
eroian ago meean;
tipitapa, larrapast
egiten bedarrean.

Batzutan gorantz, Oiz'era,
bestetan beerantz begira...

Nor zan, nor bakarti a?
Jakin ba'neu jakin nik...
Betiko joan yatan
ezagutu bagarik!

Aren atzean txoriak
eta eguzki-laztanak!

NO LO SUPE

Sola, con pies ágiles,
el sol al rostro,
dos estrellas en los ojos,
iba alegremente.

Unas veces mirando a Oiz;
otras, mirando hacia abajo...

¿Quién me diría
quién era aquella alegre joven?
En el campo pregunté a la haya
que tenía delante de mí.

No ha resollado el tronco:
guardaba para sí su silencio.

Eran rayos de sol
su dorada cabellera;
dos estrellitas sus ojos
en los herbazales y praderas.

¿Y cuál era su deseo?
¡No se podía ver su interior!

Su tierna boca tarareaba
la más suave de las canciones;
iba pasito a paso,
resbalándose en la hierba.

Unas veces mirando a Oiz;
otras, mirando hacia abajo...

¿Quién era aquella joven solitaria?
Si lo hubiera sabido yo...
¡Se me ausentó para siempre
sin que la hubiera conocido!

¡Tras ella iban los pájaros
y los besos del sol!

MAITASUN - ESKE

Beti lore
ta dotore,
neska lirain,
beti apain.

Orrillari ostu dauksazuz
zure ogei urte gordiñok;
eta milla izarren ikaraz
darabizuz begi urdiñok.

Beti lore
ta dotore,
neska lirain,
beti apain.

Illuna igesi doakizu
zure aurpegiko dizitraz;
lariñoa zerurantz igo da
ezpan orreitako arnasaz.

Beti lore
ta dotore,
neska lirain,
beti apain.

Nire ondotik igaroz
zure oiñok geldi bekidaz;
nire biotzeko oiñaze au
zeuk osatuko dozu itz baitaz.

Beti lore
ta dotore,
neska lirain,
beti apain.

EN BUSCA DE AMOR

Siempre flor
y elegante,
guapa chica,
siempre adornada.

Hás robado a mayo
tus veinte frescos años;
y tus ojos azules
los mueves con el temblor de mil estrellas.


Siempre flor
y elegante,
guapa chica,
siempre adornada.

La oscuridad huye
ante el resplandor de tu presencia;
la niebla ha subido hacia el cielo
con el aliento de tus labios.

Siempre flor
y elegante,
guapa chica,
siempre adornada.

Al pasar junto a ti,
quédense quietos tus pies:
tú curarás con una palabra
este tormento de mi corazón.

Siempre flor
y elegante,
guapa chica,
siempre adornada.



BIOZKADAK
(CORAZONADAS)

BIZITZ · AROAK

"Oi, ni gazte naitenean bai,
anditxoago nadiñean!",
zircaustan, zazpi urteko ume
okertxoaz zintzazanean.

"Orduan, gure mendi oro
negurtuko dodaz, makilla
eskuan dodala: Memaia,
Udalaitz eta beste milla.

Ogei urte daidazanean!..."
—Ba-yatortzuz ogei urteok,
gazte, mutil andi egiña:
bizkortu daitezuz oiñok!—.

"Oi, nik ba'neukez zazpi urtel
Arratsaldeetan Albitzu'ra
joango nintzake, gaztai ta
ogia aldean dodazala.

Baiña ez dot astirik orain!"
Zer gero, buru ori ule
zuritut jantzi daitenean,
ta oin orreik indarrik bage?

Bekokia txiñur, begi itun,
gaztarora begira... Enel
Nor izan leitekean barriz
leen izan gintzazamez gaztel

Aurtzaro, gaztaro, zaartzaro:
gure bizitzako aroak.
Betiko laztandu gaizala
gero, Goiko gure Jaun onaki

LAS EDADES DE LA VIDA

" ¡Oh, cuando yo sea joven,
cuando sea un poco mayor! ",
me decías cuando eras
un revoltoso niño de siete años.

"Entonces, recorreré
todos nuestros montes
con el bastón en la mano:
Memaia, Udalaitz y otros mil (muchos).

" ¡ Cuando yo tenga veinte años...! "
Ya tienes los veinte años,
joven, hecho ya un chicarrón:
¡ puedes ahora aligerar los pies!

" ¡ Oh, si yo tuviera siete años!
Iría a Albitzu por las tardes,
llevando conmigo
queso y pán.

¡ Pero no tengo tiempo ahora! "
¿ Qué harás después,
cuando tu cabeza se vista de canas
y los pies se queden sin fuerzas?

Con surcos la frente, con mirada triste,
contemplando la edad joven... ¡ Ay!
¡ Quién pudiera ser otra vez joven
como fuimos antes!

Niñez, juventud, vejez:
las edades de nuestra vida.
¡ Que nuestro buen Señor de lo Alto
nos abraze después!

IGURIA'KO ERROTAN.

Iguría'ko errotan
amairu sorgin gabeen;
Iguría'ko errotan
dantza-dantzari kantetan.

Areik bai gorputz ariñak,
aurpegi argi, oin bizkor!
"Klin, klon, klin ta klon soñuaz
ekiok ik, bolu, gogor".

Aldameneko lerdotan
mozolo zaarren kurrinkak;
ta Goikoetxe-egalean
ontzearen erantzunak.

Argi-diztirak aidean,
egaka suzko anderak,
Anboto'tik berantz, gorantz...
Errota-ondoko dantzak!

Anboto'ko Anderea
batzarre-buru nagusi;
bolu-ondoko zelaian
sorgin-oztea nabasi.

Sorgin-gaba don, itxuraz:
illargi bete; ozkarbi;
izarrak diz-diz; aizea
lotan... Au gau zoragarri!

Iguría'ko errotan
eundaka sorgin gabeen;
Iguría'ko errotan
dantza-dantzari kantetan.

EN EL MOLINO DE IGURIA

En el molino de Iguria
trece brujas por la noche;
en el molino de Iguria
bailando y cantando.

¡ Aquellos cuerpos ágiles,
de rostros resplandecientes, de pies rápidos!
" Con tu música klin, klon, klin, klon,
sigue ahí duramente, molino".

En el pinar de al lado
mochuelos viejos chirriando;
y en el alero de Goikoetxe
se oyen las respuestas de la lechuza.

Por el espacio, resplandores de luz,
mujeres de fuego volando,
bajando y subiendo por Anboto...
¡ Qué bailes los de los alrededores del molino!

La Dama de Anboto
preside la reunión:
en la pradera vecina
una muchedumbre revuelta de brujas.

Al parecer, es la noche de brujas:
luna llena, cielo sereno,
estrellas resplandecientes, el viento durmiendo...
¡ Esta sí que es noche maravillosa!

En el molino de Iguria
cientos de brujas por la noche;
en el molino de Iguria
bailando y cantando.

ZORIONA TA ITUNA

Memaria'ko zidorretatik
Itun-andera igesi doa;
urrezko uztaiz ta iru azkonez
Zorion, aren arerioa.

Ortizian, diz-diz, goizeko izarra
eta adar biko illargi zaxarra.

Alako baten, txistu min batek
iratzartu dau goizeko isilla:
azkon zorrotz bai arin-aringa
urten da, egaz, norbaiten billa.

Ituna'k ostu, bere otseintzat,
Zorionaren seme gazte bai!

Azkon-indarrez lurra jo bear
arte igarraren adar zimelak.
Barriz, bigarren txistua egaz:
berea askatu nai Zorionak.

"Ik bai larriak, Zorion-semel
Ire ama dok Itun-garaille!"

Ba-doakio irugarrena
—dardai orreaz kontuz, Ituna!—:
azkenengoak, zori on andiz,
berrindu dautso aurpegi illuna.

Ama-semeak, pozez, laztanka!
Orain abestu Zorion-kantal

LA FELICIDAD Y LA TRISTEZA

Por las veredas de Memaia
va huyendo la señora Tristeza;
la Felicidad, su enemiga, camina por detrás
con un arco dorado y tres flechas.

En el cielo brillan el lucero de la mañana
y la solitaria luna de dos cuernos.

Y de súbito, un amargo silbido
interrumpe el silencio de la madrugada:
una afilada flecha se ha disparado veloz,
en vuelo, en busca de alguien.

¡Es que la Tristeza ha robado, para ser su esclavo,
a un hijo joven de la Felicidad!

Con la fuerza de la flecha,
la rama marchita de la seca encina
ha tenido que inclinarse hacia el suelo.
De nuevo, el segundo silbido en vuelo;
la Felicidad quiere libertar al suyo.

"¡Tú sí que estás pasando angustias!
Pero tu madre será al fin la vencedora de la Tristeza".

Ahora va la tercera
—cuidado con esta flecha, Tristeza—:
la última, que, con gran fortuna,
le ha destrozado su oscuro rostro.

Madre e hijo se abrazan de alegría.
Ahora, ¡cantad la canción de la Felicidad!



GAZTEAREN NEGARRA

I

Lerdoi onen barruak, oiñik loitu-ete?
Iñoiz ezautu bako barru ezkutuak,
izarren izpietat, zer jakingo-ete?
Ler-gorenak abarrikaz, zubillak sendoak.

Gero, gorago, lurtak; baiña, zer dala-ta?
Oil, goi-goitik etorren, astiz, ur-negarra
—ur gutxiaren aala noizpait agertuta—,
eta bertatik yoian, ixil, ur leiarra.

Artzain-eguzkik jo dau, munka, Ezkubaratz;
arrats-aize biguna marmaraka dago,
ta Intxorta, margo gorritz gorri, txingarren antz...
Agur, ikuski eder, iñon ez zu lako!

Eta baso-barruan illuntasun utsa;
artzain-txistu bizia sakan-zidorretan,
bere ogei artzarrak non-nai arran-otsa,
eta artzainora acusika bedartza-langeam.

Oi txistu, artzain-txistu, mendi-dei sarkorral
Zure zarataz dar-dar tantaien adarrak;
arrotzaren barruan sarrara, bildurra,
euskaldun-biotzetan geroko itxaroak.

EL LLANTO DEL JOVEN

I

¿Habrà embarrado alguna pisada la espesura de este pinar?
Sotoneas que nadie ha conocido,
¿qué sabrán de los rayos de luz de las estrellas?
Los extremos superiores de los pinos están con maleza me-
[nuda; sólidos los troncos,

Luego, más arriba, derrumbamientos de tierra; mas, ¿cuál
[es la causa?
¡Oh!, de muy arriba venía, lentamente, el llanto del agua
—he aquí patente el poder del agua menuda—,
y por allí pasaba, silenciosamente, el agua cristalina.

El sol de la tarde, a punto de ponerse, se ha derramado, be-
[sando, sobre (la peña de) Ezkubaratz;
el blando viento del atardecer murmura,
e Intxorta, teñida de rojo color, parece ascua...
¡Te saludo, bello panorama; no hay paisaje alguno más
[hermoso que tú!

Y dentro del bosque, todo oscuridad;
en la vereda de la barranca suena el vivo silbido del pastor
[de ovejas,
por todas partes se esparce el sonido de cencerro de sus
[veinte viejas ovejas,
el mastín que ladra en el herbazal no cultivado.

¡Oh silbido, silbido de pastor, llamada penetrante en el
[monte!
Con tu sonido, temblorosas están las ramas de los árboles
[bravíos,
producen inquietud y miedo en el corazón del extraño,
pero esperanzas futuras en los de los vascos.

II

Gorantz doa gaztea. Nok euki a geldí?
Bere odol sutsua mendi-billa dabil:
Udalaitz dakus bertan, baita Anboto andi,
bekoki illun. —Gazteak izerdia pil-pil—.

Eun bide barri daukaz bere begirean.
Bai lur ontan mendiak! Bideak, geiago.
Leen gorantz, orain beerantz, atsegin-egotan.
Aurrera beti, mutil, beti urrunago!

Ez dau orain buruan lerdoko barne a,
barne isilla, bakarra, zorion-betea;
urrundu dau burutik bazter gozatsu a:
Intxorta'ra eldu da... Ene, bere Intxorta!

III

"Mendigoizalea naz... —diño biotz minduz—;
bertontxe nengoan, bai, egon nintzan noizpait:
nerau lurrar bat-einda, goi ta beeak mamuz...
Lagunen eriotza burura datorkit.

Baña adoretzu il ziran: Urtzi eta Aberri
gogoan ebezala ezpan-biotzetan.
Eta gorritasun au? Odola dirudi.
Arein gogoak, barriz, Jaunaren bakean!"

IV

Leengo gazte alaia laiño biurtu da;
bere begi urdiñai negarra darie;
oto! zuri bat gorantz, zerurantz, igo da,
ta aingeruek Urtzi'ri eskiñi dautsoe.

Gaztea beerantz doa —otak zidorretan—,
ta eresi samur bat galdu da ortzian:
"Truten ari nuzu khilua gertian,
ardura dudalarik nigarra begian..."

II

El joven sigue hacia arriba. ¿Quién podrá detenerlo?
Su ardiente sangre busca el monte:
ve cerquita Udalaitz, y también el gran Anboto,
de frente severa. —El joven hierve de sudor—.

Tiene ante sí cien caminos nuevos.
¡Cuánto monte hay aquí! Y aún más son los caminos.
Antes hacia arriba, ahora hacia abajo, en alas del placer.
¡Sigue siempre adelante, joven, siempre más allá!

Ya no tiene en la mente aquella sotonera del pinar,
silenciosa, solitaria, llena de felicidad;
ha alejado de su atención el rincón delicioso aquel:
ha llegado a Intxorta... ¡Dios mío! ¡Su Intxorta!

III

"Soy montañero... —dice, dolorida el alma—;
estaba aquí mismo, sí, estaba alguna vez...
hecho todo uno con la tierra... arriba y abajo con fantas-
[mas...

Me viene al recuerdo la muerte de mis compañeros.

Pero murieron valientemente: Dios y la Patria vasca
llevaban en el alma, en los labios y en el corazón.
¿Y ese color rojizo? Parece sangre.
¡Pero sus almas descansan en la paz del Señor!"

IV

El alegre joven de antes se ha convertido en oscura niebla;
sus ojos azules destilan lágrimas;
una limpia oración hacia arriba, hacia el cielo ha subido,
y los ángeles la han ofrecido a Dios.

Desciende el joven —hay árgomas por las veredas—,
y una tierna canción se ha perdido en el firmamento:
"Estoy hilando con la rueca a la cintura,
con llanto en los ojos, por sentirme inquieta..."

ASPALDIKOA

Beti alan, poz bagarik,
bizitza zan itun!
Barre-iririk ez mosuan,
urrun soñu biguna,

entzun eziñik mendian
orbel-otsa oiñetan,
neroni pa emon nairik
udagoi-arratsetan...

Amaika aldiz nai izan neban
askatasun-bidea,
txakur mustur-baltz arekin
bakez bizi-izatea!

Baiña abots batek ziraustan:
"Alan nai zeuke bizi?
Kontuz!, loren artean, bai,
arantzak dira ikusi".

Negar, itxaron, gura izan
alcitasun-geroa:
auxe zan luzaro nire
amaibako leloa.

(LA CANCION) DE ANTAÑO

Siempre así, sin alegría,
¡qué triste era la vida!
Sin una sonrisa en el rostro,
ausente la dulce canción,

sin poder oír en el monte
el ruido de las hojas secas
que deseaban besarme
en los atardeceres de otoño...

¡Cuántas veces quería escoger
el camino de la libertad,
vivir en paz
con aquel perro de hocico negro!

Pero una voz me decía:
"¿Quisieras vivir así?
¡Cuidado!, pues junto a las flores
siempre se han visto espinas".

Lágrimas, esperar y desear
un porvenir de alegría:
esto era por largo tiempo
mi interminable canción.

EIZTARI NAIBAGETUARI

Basora zoaz, eiztari:
orbelak dozuz bidean;
basora zoaz, eiztari,
belak gura aña zelacian.

Gertu eukizu uztai ori,
begira ondo dardaiak...
Ez dagoz zuri itxaroten:
urrundu yatzuz mendira!

Eguzkiaren izpiak
baltzikak dira lerdioan;
goiz-aizearen irriak
lotan diardu basoan.

Mendira zoaz, eiztari
—aitz-koskortxoak bidean—;
mendira zoaz, eiztari,
belak edonon mendian.

Iges-iges goiz aña.
Jarrita zagoz, eiztari
—bedartzearen ezea!—;
zelan zagoz, ba, ameslari?

Non ete-dozuz goizeko
egazti luma-baltzikak?
Basoko lerdioan zear
dabiz biziro sei belak.

Ta zure uztai ta dardaiak?
Ausi dozuz bat-batean
—txorien txorro-txioak!—
basoko zugatz-artean.

Ettxera zoaz, eiztari:
ezer ez dozu eizatu;
etxera zoaz, eiztari:
belak be ez dozuz uxatu!

A UN CAZADOR APENADO

Vas al bosque, cazador:
hay hojas caídas en el camino;
vas al bosque, cazador,
hay cuantos cuervos se quiera en el follaje.

Prepara ese arco,
mira bien la flecha...
Pero no están esperándote:
¡han huído al monte!

Los rayos del sol
son oscuros en el pinar;
la sonrisa del céfiro temprano
duerme en el bosque.

Vas al bosque, cazador
—hay guijos por el camino—;
vas al bosque, cazador:
dondequiera cuervos en el monte.

La mañana huye ligera.
Sentado estás, cazador
—¡qué verde es el prado!—;
pero, ¿por qué sueñas?

¿Dónde estarán tus aves de plumaje renegrido
del amanecer?
Los seis cuervos vuelan velozmente
a través del pinar de la selva.

¿Y tu arco y tus flechas?
Los has roto en un instante
—¡cómo gorjean los pajarillos!—
entre los árboles del bosque.

Vas a casa, cazador:
no has cazado nada;
vas a casa, cazador:
¡no has conseguido ni ahuyentar a los cuervos!

ZELAIETAKO (1)

Eta suagada a baizen arñik,
ez zan inoiz izan txisturik!
Neuganuratz ekarren aren danba illa
aize bigunak sortzaldetik.

Argñieta-esian,
aize zabaletan,
bedariza orlegian,
begiak ortzian...

Bere arintza burzoragarria
tximistari ostu naiean;
biotza dar-dar... ta Txistu alata
bizkor ta arin zelai ezean.

Gero an, mendiaz bat,
eresi argia
galtzen zan, bizi nairik...
Suagada itzelal

Zelai zabalaren kolkoan, alai,
milla gazte ebizan urduri.
Non ete-ziran arein biotz-zaiñak?
Pozez ziran dantza-dantzari!

Nortzuk ete-zirean
begi baliz-zaleak?
Aize meeak eutsezan
ardura zorrotzak!

Eta suagada a baizen arñik,
an entzun ete-zan inoiz txisturik?

(1) Gudaldian jazo zana gomutatzen naz lerro onetan; erro-meri baten, txistua ta danboliña jotzen zarduela ta gazte-taldeak dantzari, suagadaka asi ziran guda-oineko beste aldekoak, ez toki aretara, askozaz urrunago baiño; gazteen buru-gañetuk yola-zan suagada areik, eta txistu bi entzuten ziran; gure txistua ta suagadana.

(CANCION) DE LAS PRADERAS (1)

¡No hubo jamás un silbido tan rápido
como aquel cañonazo!
La suave brisa me traía del Este
su zumbido de muerte.

Estaba en el cercado de Arg(u)ñieta,
a pleno viento,
en el verde herbazal,
fijos los ojos hacia el cielo...

Quería quitarle al relámpago su terrible rapidez;
me latía fuertemente el corazón...
mientras nuestro txistu alegre
sonaba vibrante en la húmeda pradera.

Al mismo tiempo, en el mismo monte,
se perdía una canción sonora
con ansias de vivir...
¡Y otro cañonazo terrible!

Dentro de la planicie de aquella pradera,
mil jóvenes bailaban briosa y alegremente.
¿Dónde estarían entonces los guardianes de sus corazones?
Ellos, sin embargo, bailaban alegremente.

¿Quiénes serían
los que apreciaban unos ojos negros?
¡Qué celos tan penetrantes
les tenía el viento sutil!

¿Se había oído allí alguna vez
un silbido tan rápido como aquel cañonazo?

(1) Traigo a la memoria en estas líneas lo que sucedió durante la guerra: en una fiesta de romería, mientras tocaban el txistu y el tamboril y bailaba un grupo de jóvenes, los de la otra parte del frente de guerra comenzaron a cañonear, pero no a aquel lugar, sino mucho más lejos; aquellos cañonazos iban por encima de aquellos jóvenes, y se oían dos silbidos: nuestro txistu y el de los cañonazos.

JOLASETAN

Baratza lorez apain
nire etxe-ondoan;
Arantza'ren jolasak
baratz-lora artean!

Lora guztiak daukaz
berari begira,
ta berak mun dagitse
gogoko ba'dira.

Loretan amapola
maitetsuen dauko;
aren kolore-miñez
arduratan dago.

Zeruko izar bi dira
bere begitxoak,
ortzi zabala itzirik
lurrera jausiak.

Ez dagoz oztinean
soil-soillik izarrak:
baratze arek bere
ba-ditu izarñoak.

Lorategian lora,
lora politena
bere gogoa, nonbait,
izarrez dagona.

Baratza lorez apain
nire etxe-ondoan;
Arantza'ren jolasak
baratz-lora artean!

JUGANDO

Un jardín adornado de flores
junto a mi casa;
¡qué juegos los de Arantza
entre las flores del jardín!

Todas las flores
están mirando a Arantza,
y ella da un beso
a las de su agrado.

Entre las flores es la amapola
la que ella más ama;
tiene celos
del color de esa flor.

Sus ojitos son
dos estrellas del cielo,
que, dejando el ancho firmamento,
han bajado a la tierra.

No hay solamente
estrellas en el azul:
también aquel jardín
posee estrellas.

Una flor en el jardín,
la flor más bonita,
su alma, sin duda,
adornada de estrellas.

Un jardín adornado de flores
junto a mi casa;
¡qué juegos los de Arantza
entre las flores del jardín!

GURARIAK

Jakin dozuz inoiz nire naiak?
Entzuizuz orain apurñoak.

Mendi-usaia biotzez artzea,
artizar-mosuz begiok leuntzea,
gero izarretan ikusi dagidan
zure edurrezko aurpegi garbia.

Gizadi-izketak beti loitzen dabe
barruan dagon gogo orbanbagea;
oiñok urrundu kale-bideetatik,
ez izateko gizadi-zalea.

Bakartasun-egoz mendietara jo,
bekokiaz bat ortziko laia;
oneia daukat nigandik urrago
gure Egille dan Aita ta Jainkoa.

Gogo-lorez batu
mendien bake dana;
gero beraz bildu
zure mosu biguna;

paço-amesez biztu
bion su illeziña,
ortuan sartu gure
maitasun gordiña...

Esan dot, baiña... ezin:
ez dot maitasunaz amesiki!
Amak ostuta daukat
biotza leendik, txikitatik...

Ezer ez dakit,
ta dana daukat:
Jainkoagaz naiz.
Urtzi'gan ni bat!

DESEOS

¿Has sabido alguna vez mis deseos?
Oye ahora algunos de ellos.

Aspirar intensamente el olor de los montes,
limpiar mis ojos con besos del lucero de la mañana,
para ver después en las estrellas
tu limpio rostro de nieve.

Ya que la conversación humana
siempre suele empañar el alma limpia de nuestro interior,
quiero alejar mis pasos de los caminos callejeros,
para no aficionarme a tratar con el gentío.

Quiero alejarme a las montañas en alas de la soledad,
unir mi frente con la niebla del cielo,
para tener así más cerca de mí
al Padre y Dios que es nuestro Creador.

Quiero recojer con flores
toda la paz de los montes,
y unir con esta paz
tu suave rostro;

encender con sueños de hayas
el fuego inmortal de nosotros dos,
y esconder después en el huerto
nuestro amor aún no maduro.

He dicho nuestro amor, pero... no puedo decir esto:
¡no tengo ensueños de amor!
Es que mi madre me robó
el corazón antes, cuando era pequeño.

No sé nada,
y tengo todo:
estoy en compañía de Dios.
¡Vivo unido en Dios!

A ZAN, A...!

Bioi laztanak emoten
—maitasun-laztanak—
aize biguna, txistuka
iratzartzen lerrak.

Itxiaz eta zabalduz
bion begi leunak
ezpan gorriai begira,
zaintzaille zintzoak.

Zugatz-orriak
geuganuntz pillo-pilloka,
aize-laguntzaz
bilin-bolaketan beera.

Ta bitartean,
zidorrez-zidor mendirantz,
jauzi-jauzika;
baiña arin nekatu gorantz!

Bat-batean sasitzan
okilla zirika;
artu geban arria...
beingoan igeska.

Gero, an, zugatz-goian
zozoa kantari,
burua tente, urduri,
ortziko odeiari.

Ta arela, pozik,
bedar ezezko mendian,
zenbat gogapen
gure buruen barnean?

¡AQUELLO SI QUE ERA...!

Abrazando a los dos
—abrazos de amor—
el suave céfiro,
despertando con su silbido los pinos.

Nuestros dos tiernos ojos,
cerrándose y abriéndose
—fieles guardianes—,
miraban a los rojos labios.

Las hojas de los árboles
venían a montones hacia nosotros,
y con la ayuda del viento
caían dando tumbos.

Y, mientras tanto,
de vereda en vereda hacia el monte,
dando saltos;
¡pero nos cansábamos hacia arriba!

De pronto, oímos al picatronicos
punzando en el matorral;
cogimos una piedra...
pero al punto huyó.

Después, allá, en lo alto del árbol,
cantando el mirlo,
con la cabeza erguida, inquieto,
a la nube del cielo.

Y así, dichosos,
en el monte de verde hierba,
¿cuántos pensamientos
en el interior de nuestra mente?

GABEKO BEDERATZIETAN

Nire etxeko leiocan,
gabeko isilletan,
aize bigun-artean,
biotza amesetan!

Ezer ez da entzuten;
bildotsen be erlatza
da bakarrik gabeko
eresi-lorratza.

Ozkarbian izarrak,
mendi-goian zugatzak.

Illargi betearen
zidarrezko ditziz
aitz-gaiñak zuriz dagoz,
oro jantzi zuriz.

Laiño meea menditik
goi-gorantz igo da;
mozoloa torretik
mendirantz joan da.

Ez dot bear lagunik
gogarizeko bakarrik.

Bakardiak artu nau
altzoan isilka,
eta isillak gorde nau
ostuka-ostuka.

A LAS NUEVE DE LA NOCHE

En la ventana de mi casa,
en el silencio de la noche,
entre el suave viento,
soñando el corazón.

Nada se oye;
sólo el ronco balido de los corderos
era como un rastro de música
en la noche.

En el cielo sereno se ven estrellas;
en la cima del monte, árboles.

Las cumbres de las peñas son blancas
con los resplandores de plata
de la luna llena,
todo está de blanco.

La neblina ha subido
del monte hacia arriba;
el mochuelo ha ido
de la torre hacia el monte.

No necesito compañía
para meditar yo solo.

La soledad me ha rodeado
en su regazo calladamente,
y el silencio me ha abrigado
a escondidas.

**Onela nagocia,
din, din, din, din, din, din,
eta bardin beste iru,
kanpaiak din, din, din.**

**Beratzi otsak entzun:
txapela kendu daigun.**

**Ozkarbitan kampaia
belarrira dator:
egin dodan otoitza
Jainkoari bizkor.**

Estando, así,
suenan seis tañidos de campana
y luego otros tres,
idénticos, como ecos.

Oigo las nueve campanadas:
me quito la boina.

En el limpio cielo
viene el toque de queda al oído:
mi oración sube
rápidamente a Dios.

MEMARIA'N

Memaria'ko zelaian
atsegiña dago;
Memaria'ko zelaian
zoriona bego!

Memaria'ko txoria,
txindortxu polita:
zetako zagoz atsege?
Zein atsekabea?

Zetan zabiz ara-ona,
ixioz, goi ta beean?
Biotz-zatia dakuzu
orrien artean?

Ai papargorri gorritxo:
ñoiz naigaberik
ezautu dozu barruan?
ñoiz ez, gaur ezik.

Memaria'ko zelaian
atsegiña dago;
Memaria'ko zelaian
atseдена bego!

EN MEMA(R)IA

En la pradera de Memaia
se siente paz;
en la pradera de Memaia
se siente felicidad.

Pájaro de Memaia,
lindo petirrojo:
¿por qué estás inquieto?,
¿cuál es tu aflicción?

¿Y por qué andas de árbol en árbol,
piando, arriba y abajo?
¿Es que ves un pedazo de corazón
entre las hojas?

Oh petirrojo, pequeño petirrojo:
¿has conocido tú alguna pena
dentro de ti?
Jamás, a no ser hoy.

En la pradera de Memaia
me siento dichoso;
en la pradera de Memaia,
¿qué lugar de reposo!

KATUARI

Ai katu arin, "Pitxirrin" polit!
Bizkortu lau ankatxukoak,
txakurra yagok ire aurrean:
garbitu arin begiok.

Purrustadea "puf-puf" aguro,
urrundu adi beingoan
elae baltzen lasiertasunaz:
txakurra dok or atzean.

Eta gero zer? Ai katu, katu...
Aurrean dozak zugatzak!
Zetarako, ba, ire anketan
atzapar luze-zorrotzak?

Barrien-barrez kardantxilloak
txiru-liruka asperturik!
Ago-zabalik yagok txakurra,
eta i bildurrez beterik?

Ai katu nagi, "Pitxirrin" oker!
Non daukak sagu usaintsua?
Pozik yabik a dantza-dantzari,
ba-yarik non dan zuloa.

Ez dok ikusten begi-aurrean
txoria soñuz sasitzan?
Ai katu, katu: non, zetan ago?
Oil, lotan ago bedartzan!

AL GATO

¡Oh, gato veloz, lindo "Pitxirrin"! .
Aligera tus cuatro patitas,
puesto que tienes delante de ti al perro;
limpia pronto esos ojos.

Echale rápidamente un refunfuño "puf-puf"
y aléjate al momento
con la ligereza de las negras golondrinas,
ya que irá detrás de ti el perro.

Y después, ¿qué? Oh gato, gato...
Sube a los árboles que tienes delante.
¿Para qué tienes, si no, en tus patas
esas zarpas tan largas y afiladas?

Te han visto los jilgueros,
¡y gorjean que se cansan!
Al perro le tienes con la boca abierta;
y tú, ¿muerto de miedo?

¡Oh gato perezoso, travieso "Pitxirrin"! .
¿Dónde tienes al oloroso ratón?
Anda a todo bailar,
ya sabe dónde tiene su agujero.

¿Y no ves tampoco delante de tus ojos
al pájaro cantando en el matorral?
¡Oh, gato, gato! : ¿en dónde estás?, ¿qué estás haciendo?
¡Oh, estás durmiendo en el herbazal!

PUILLA'KO ITURRIA

Goizean-goizean
Puilla'ra noa;
goizean-goizean
Puilla-iturrira.

Iturri-murmurra
lau baztarretan,
negartsu, jolasez,
zir-zir, uifietan.

Puilla maitetsua!
Puilla zer danik
beroak ez daki
ango bidetik.

Iturri-agoa
oldei-artean,
ta euzki-diztirak
goi-urrunean...

Udaren begian
bertako urak
laxtandu daizala
ezpan gorrizkak!

Goizean-goizean
Puilla'ra noa;
goizean-goizean
Puilla-iturrira.

LA FUENTE DE PUILLA

Todas las mañanas
voy a Puilla;
todas las mañanas
a la fuente de Puilla.

El murmullo de la fuente
se oye por los cuatro rincones,
jugando lloroso,
como en ebullición, en las ondas.

¡Qué cariñosa es Puilla!
El calor no sabe
lo que es Puilla
por aquel camino.

La boca de la fuente
está entre musgo,
y los rayos del sol
arriba a lo lejos...

¡Que en pleno verano
sus aguas
besen
labios rojizos!

Todas las mañanas
voy a Puilla;
todas las mañanas
a la fuente de Puilla.

GABONZAAR - GABEAN

Zugatz bat gutxiagoz
etxeko baratza;
urrezko ekarria
arekin galdu da.

Eun ortziren balioz
joan yat urtea;
obeago izan ba'litz
nire bizikera!

Zer diñoan jakin nai
urtearen Jaunak.
Sartu naiten barruan,
itz begist gogoak.

Au dot ezpaia nigaz!
Negute izan dan,
aurten bere, bildur naz.
Ikusi dagidan:

Baizetz, ezetz, au, ori,
eta a: onenbeste;
onela ta orrela...
emen urtebete.

Nagon lotsaz isilik!
Sar nadin ogean.
Izan nadin obea
Urtebarri ontan.

EN LA NOCHE DE NOCHEVIEJA

Un árbol menos
en el huerto de mi casa;
con él se ha perdido
el fruto de oro.

Se me ha ido el año
con el valor de mil firmamentos;
¡si hubiera sido mejor
mi conducta!

Quiero saber lo que dice
mi Señor de este año.
Penetre yo en mi interior,
hábleme el alma.

¡Qué duda tengo conmigo!
Tengo miedo de que este año
haya sido también temporada invernal.
Véalo ahora:

Que sí, que no, esto, eso
y aquello: tanto;
de ésta, de esa forma...:
he aquí un año completo.

¡Esté callando de vergüenza!
Acuésteme en el cama.
Y sea mejor
en este año nuevo.

ARANTZAZU, ARANTZAZU...!

"Zuk zer dezu, Arantzazu?"
(Salbatore Mitxelena).

Zuk zer dozun? Neuk ba'neki...
Zure ondoan sei egun
igaro yataz baketan;
nok leikeazan irureun!

Eundaka bidar dakutsut
zure aurpegi maitea;
orrek naroa ikustera
Zuk dagistazun barrea.

Baiña Zu isilik zaukadaz,
Arantzazu'ko Amatxo.
Naiko ete-da barrea
nik emoteko eun patxo?

Ba-dakit maite nozuna
berbarik egin ezarren;
zure maitari-artean
izan naitela aurrenen.

Nire gaztaro ederra
astiro-astiro ba-doa;
aurreantzean, Zeuretzat
nire maitasun beroa.

.....
Arantzazu'tik ba-noa,
ta agur dagitsut, Ama, agur;
bizi nadin, zure oroiz,
aldi oro Zugandik ur.

Zeruko ate-aurrea,
Arantzazu, Arantzazu!
Il naitenean, baketan,
zagoz ondoan, Ama, Zu!

¡ARANTZAZU, ARANTZAZU...!

"¿Qué tienes tú, Arantzazu?"
(Salbatore Mitxelena)

¿Que qué es lo que tienes? Si yo lo supiera...
He pasado seis días en paz,
junto a ti;
¡quién hubiera podido pasar trescientos!

Centenares de veces veo
tu amado rostro;
él me lleva a ver
tu sonrisa hacia a mí.


Pero Tú estás callando,
Madrecita de Arantzazu.
¿Será suficiente tu sonrisa
para que te dé cien besos?

Ya sé que me amas
a pesar de que no me hablas;
que esté de los primeros
entre tus amantes.

Mi hermosa época juvenil
ya va poco a poco;
en adelante, para Ti
mi ardoroso amor.

.....
Marcho de Arantzazu,
y me despido de Ti, Madre;
que, por tu memoria,
viva yo siempre cerca de Ti.

¡Portada del cielo,
Arantzazu, Arantzazu!
Cuando muera, en paz,
¡estate, Madre, junto a mí!



BITARGI

(1.º argitarapena: 1960
1.ª edición: 1960)

KANPAI-OTSA

Kanpai-otsa torrean:
norbaít il da, itxuraz.
Txoriak ixil, mutu,
otsaren durundaz.

Erritarrak erreguz,
etxandrak itaunez:
"Nor il da?" Ta guztiak:
"Kaleon, iñor ez".

Ez dakie nor il dan;
iñor geisorik bai?
Ez egin jaramonik
erriko kampaia!

Baiña areik, astiro,
din-daun diardue:
eguneko egia
eurak dirautsue.

Ekin gogor, kampaio!
zabal gure ituna:
gaur goizean il baita
biren maitasuna!

SONAR DE CAMPANAS

Sonar de campanas en la torre:
ha muerto alguien, al parecer.
Los pájaros se callan, enmudecen,
con la resonancia del tañido.

Nuestros paisanos en oración;
las señoras de casa preguntan:
"¿Quién ha muerto?". Y todos responden:
"En esta calle, nadie".

No saben quién ha muerto;
¿es que ha habido algún enfermo?
¡No hagáis caso
a las campanas del pueblo!

Pero las campanas, pausadamente,
siguen sonando:
ellas te dicen
la verdad del día.

¡Seguid sonando, campanas;
propagad nuestra tristeza,
porque esta mañana ha muerto
el amor de dos personas!

GOIZALDE

Goizalde; lañoz illun;
zurrunbilloz edur-matazak;
lotan ibar osoa;
kurrinkalari itsas-antzarrak...

Negu izan, gazte, negul
Otz landan, otzago barruan,
maitasun baten eske
bizi dan biotz larrituan.

Onek ez dau etenik.
Ta egon, dardaraka, egon;
ta bizi, iltzean, bizi:
nireak ein dau neguteon.

Ames-bideetan zear
narabil nire goi-argiak:
"Ez adi bildur, biotz;
jaso gorantz gogo-begiak!"

Bitartean..., edurra
jausi ta jausi. Nok leiketan
nireganako leia
garreztu zure barrenean!

AMANECER

Es el amanecer; oscuro por la niebla.
Los copos de nieve caen en remolinos;
roda la ribera está dormida;
chirrían los patos de mar...

¡Es que es invierno, joven, invierno!
Hace frío en el campo, más frío dentro,
en el corazón acongojado que vive
en busca de un amor.

Esto no tiene término.
Y hay que estar, temblando, pero estar;
y hay que vivir, a punto de morir, pero vivir:
voy a fallecer en este invierno.

Mi inspiración me lleva
por los caminos de las ilusiones:
"No tengas miedo, corazón;
¡levanta hacia arriba tu espíritu y tus ojos!"

Mientras tanto..., sigue nevando sin cesar.
¡Quién pudiera poner a rojo vivo
tu inclinación hacia mí
en tu interior!

ABESTI - MIÑEZ

Abesti-miñez jagi naz
udazken-goiz onetan;
ego-aizea dot lagun
aurreko zugatzetan.

Anboto, leengo tokian
geldi, mendi ta ibar zain;
areitzak soñeko baga
ta orbelak gura lain.

Azken-iratzak mendian
igitaiari deika;
basoko bide estuetan
burdiaren kirrinka.

Udagoi-azken-arnasak
arduraz jarri nabe:
izango ote-naz neguan
Maitederraren jabe?

Zagoz isil, oiñaze-ezpai;
ez daqidan bildurrik:
iñoiz ez da galdu neguz
urrezko maitasunik!

CON ANSIAS DE CANTAR

Me he levantado con ansias de cantar
en esta mañana otoñal;
el viento sur me acompaña
en los árboles de enfrente.

Anboto está quieto en el sitio de siempre,
vigilante de montes y riberas;
los robles, sin vestido,
y hojas caídas en abundancia.

Los últimos helechales en el monte
están reclamando la hoz;
en los caminos estrechos del bosque
se oye el crujir del carro (de bueyes).

Los últimos alientos otoñales
me han puesto preocupado:
¿Seré dueño de la Bella amada
en invierno?

Cállate, duda atormentadora;
no tenga yo miedo alguno:
¡jamás se ha perdido en invierno
un amor de oro!

ZEURI, JAINKO

Zeuri, Jainko, eten bage esker
neska orren ederragaitik;
Zeugandik datorio-eta
dauana, ta ez beragandik.

Eskerrak egiñaz gainera,
aren alde dagitsut, otoi:
gorputz apaiñaren barruan
ba-daiteke izan arima loi.

Eder orren arazoetan
ager egiozu zure itza:
Zeu baitzara —soillik— bidea,
egia ta zeru-bizitza.

Ta alkarrentzat garan ezkeru,
iraunazo eiozu, Jauna,
oraingo barreirri ezlia
ta begien ditzira leuna.

Zure izpillu izan dakidala,
aregan Zerori ikusteko,
aregaz batera Zurekin
zorion betea izateko.

Zeuri, Jauna, barriro bere,
aintza oro ta eskerrona;
gorde Zugan nirekin beti
nire biotzaren kutuna!

A TI, DIOS MIO

Gracias a Ti, Dios mío, sin cesar,
por la hermosura de esa chica;
porque lo que ella tiene
le viene de Ti, y no de ella misma.

Además de darte gracias,
te suplico por ella:
en el interior de un cuerpo lindo
puede ser una alma manchada.

En los quehaceres de esa hermosa,
muéstrale tu palabra:
porque eres Tú —solamente—
el camino; la verdad y vida celestial.

Y ya que somos el uno para el otro,
hazle permanecer, Señor,
su actual sonrisa
y el suave brillo de sus ojos.

Que sea para mí espejo tuyo,
para verte a Ti en ella,
para tener la plena felicidad contigo
juntamente con ella.

A Ti, Señor, de nuevo
toda gloria y agradecimiento;
guarda siempre en Ti
a la amada de mi corazón.

ARTEGA DOT BIOTZA

Zer dirautazun begira
artega dot biotza;
entzun eziñik, goizetan,
antziñako abotsa.

Etxe-aurrean izketan,
zure orde, aizea;
noizean bein ekarten daust
zure agur-ordea.

Nire bakarraldietan
negar dagit ixilik;
zer egin daiket, bestela,
maite dana urrindurik?

Izar danen abestia
betorkit poztutera,
eta beraren laztanez
oiñaze au kentzera!

Erreten daukat burua,
otzez dar-dar arima,
larri darabilt arnasa...
Nik dodan maite-miñal!

"Biar, biar eta biar..."
Orixe da zure itza.
Biztu eidazu beingoan
daroadan gau itsal.

TENGO INQUIETO EL CORAZON

Tengo inquieto el corazón
esperando qué me dirás;
sin poder escuchar por las mañanas
tu voz de antaño.

Delante de mi casa está hablando
no tu voz, sino el viento;
de vez en cuando ya suele traerme
el sustitutivo de tu saludo.

En mis ratos de soledad
lloro en silencio;
¿qué puedo hacer
si tengo lejos a la que amo?

Venga a consolarme
el canto de todas las estrellas,
a quitarme con su beso
este tormento.

Tengo una hoguera en mi mente,
tiritando de frío el alma,
acongojado el aliento...
¡Qué ansia de amar la mía!

"Mañana, mañana, mañana..."
Esa es tu respuesta.
¡Ilumíname pronto
esta triste noche que llevo en mí!

EURIA ETEN BAGA

**Euria eten baga
nire biotzean;
euria mara-mara
zure ta nirean.**

**Euriaren gozoa
gure barrenean!
Ez dau miñik egiten
uda-arrats beeretan.**

**Zer bear dau besterik
maitasun goriak?
Busti, arren, odeiak,
gure blotz biak!**

LLUEVE SIN CESAR

Llueve sin cesar
en mi corazón,
Llueve mansamente
en tu corazón y en el mío.

¡Qué dulzura la de la lluvia
en nuestro interior!
No hace daño alguno
en los atardeceres de verano.

¿Qué otra cosa precisa
un amor ardiente?
¡Nubes, mojad, os ruego,
los corazones de ambos!

BEGI BLOK

Begi biok ikusiz
bizi nintzan egunero;
bakea galdu yatan,
illez, urrunduaz gero.

Arein billa nenbillen
lerdoi-zear, lats-ertzetan;
oiñok ez ziran gauza
ainbesterako isilletan.

Argirik ez zan nigaz
—zeureok baitziran izar—,
ta barruko bideok,
neguko edurrez, zidar.

Basoetara urrinduz
busti nenduan lainoak;
mendietara igonez,
ots egin eutsun biotzak.

Ta ez zara aztu nitzaz:
damuz zatorkidaz orain.
Zerua jaritsi dot
atzoko naigabe-ordain.

Bizitza, ortzia da:
gaur, ozlin; biar, lainotsu.
Izan gaitazan biok
amai baga zoriontsu!

ESOS DOS OJOS

Vivía todos los días
viendo esos dos ojos;
perdí la paz, amortiguándose,
después que se alejaron de mí.

Andaba en su busca
entre los pinares, en las orillas de los riachuelos;
mis pies no servían
en tan gran silencio.

No había ya luz para mí
—tus ojos eran mis estrellas—,
y los caminos de mi interior
eran plata con nieve de invierno.

Yendo a los bosques,
me mojó la niebla;
subiendo a las montañas,
te llamó mi corazón.

Y no te has olvidado de mí:
vienes arrepentida ahora.
He conseguido el cielo
en compensación al disgusto de ayer.

La vida es como el cielo:
hoy, azul; mañana, nublado.
¡Seamos los dos
eternamente felices!

UDABARRI - BIOTZ BAT

Udabarrí-biotz bat
dot nire ondoan;
eta lora barria
erne yat gogoan.

Neguan ames zana
orain egi dakit;
inoiz maite ez nebana
neurekin darabilt.

Eun ortziren jabe naz
lora barri onaz.
Zer egin ete-dakiket
dodan zorionaz?

Ez da izaten, osterá,
lora luzaroko;
ezta illargia bere
zeru-zain gau oro.

Gaur argitsu dodana,
biar ez ainbeste;
nok gazteon biotzok
maitasunez bete?

Dagidan indar gaurkozi
Zu ta ni baturik,
ez daigun bear inoiz
beste maitasunik!

UN CORAZON DE PRIMAVERA

Tengo a mi lado
un corazón de primavera;
y una nueva flor
ha brotado en mi espíritu.

Lo que en invierno era un ensueño,
ahora se ha hecho realidad;
la que nunca amé,
la traigo conmigo.

Soy dueño de mil cielos
con esta nueva flor.
¿Qué puedo hacer
con esta felicidad que poseo?

No suele ser, sin embargo,
la flor para largo tiempo;
ni tampoco la luna suele ser
todas las noches centinela del cielo.

Lo que hoy me es resplandeciente,
mañana no lo es tanto;
¿quién puede llenar de amor
los corazones de los que somos jóvenes?

¡Tenga yo fuerzas por hoy!
Uniéndonos tú y yo,
no necesitemos jamás
ningún otro amor.

OGEITALAU URTEZ

Ogeitalau urtez
il zan arameko
atsegiña;
aren ondoren
galdu zan udako
neska-miña.

Eun lore-sorta
ta orbelak —maitez—
illobian;
ego-aizea,
illeta-eresiz,
areiztian.

Zortzi egunez
ekin eutsen andrak
otoitzari,
ta zortzi gauez
odeiak —samurki—
negarrari.

Eta urrilgo gau
zoragarri baten
illargitan
—adi, biotzok!—,
soiñu au entzun zan
urrutian:

“Egin bizitzan,
gazteok, maitasun
illezkorrak;
landu zuekan
adiskidetasun
betikorrak!”

A LOS VEINTICUATRO AÑOS

Con veinticuatro años
se murió la alegría
del valle;
con ella se perdió
la pasión amorosa
del estío.

Cien ramilletes de flores
y hojarasca —con amor—
en el sepulcro;
viento sur,
con elegías,
en el robledal.

Por ocho días
las mujeres insistían
orando,
y por ocho noches
las nubes —tiernamente—
llorando.

Y, al claro de luna
de una encantadora noche
de octubre
—¡atended, corazones!—,
se oyó esta melodía
a lo lejos:

“¡Haced en la vida,
jóvenes,
amores inmortales;
labrad en vosotros
amistades
perdurables!”

ZEURETZAT

Zeuretzat nire goiz-ahetsial
Zetako zaitut izar igeskor?
Bizitzako zidor lanbrotsuan
egunoro zakusdaz aldakor.

Aize-egotan damotsut
agurrik samurrena,
zeugandik lortu nairik
etorkizun-baimena.

Zeuretzat eguneko kantual
Nire etxeko leiota egoaz
elai baltzizkak jo daistenean,
neure gogoan izango zaudaz.

Eta itzaliz doala
egunaren argia,
artu eidazu, neska,
nire gau-eresial

PARA TI

¡Para ti mi canción matinal!
¿Para qué me eres estrella fugaz?
En la vereda humbrosa de la vida
todos los días te veo voluble.

Te doy el más tierno de los saludos
por medio de las alas del viento,
queriendo conseguir de ti
la aprobación del porvenir.

¡Para ti mi canción de cada día!
Cuando las oscuras golondrinas
toquen con sus alas la ventana de mi casa,
te tendré en mi espíritu.

Y cuando vaya declinando
la luz del día,
¡recibe, muchacha,
mi canción de la noche!

ILLUNTZEAN

"Juventud, divino tesoro,
ya te vas para no volver!..."
(Rubén Darío)

Arrats-beera gorrienean
ostenduz doa eguzkia;
ta egunaren berroz datza,
buru-makur, Ama Izadia.

Zugatzen geriza luzea
mendi-amaietan ausi da;
ba-dator, geldiro-geldiro,
itzal-jabe dogun gau-illa.

Gaba dot inguru ta barru;
baita nazan au be gau nozu...
Gau-txorlai ezaun naitake:
eurak dakarstez zure eun mosu.

"Gaztaro, altxor zerukorra:
etorritik ezaz, ba-zoaz!"
Bakartaldi amai bageak
iruntsi nau bere besoaz.

Baiña... itxaropen-izpiz dakust,
urrun, gatzaro-Erregiña.
Urreratu zakidaz, Izar,
ta batu bion alkarmiña!

AL ANOCHECER

En el más rojizo de los atardeceres
va ocultándose el sol;
y la Madre Naturaleza yace,
con la cabeza inclinada, por el calor del día.

La larga sombra de los árboles
se ha roto al final del monte;
ya viene, lentamente,
la noche que es la dueña de las sombras.

Es noche en torno de mí y en mi interior,
y, aun lo que soy, también es una noche...
Me reconocen las aves nocturnas:
ellas me traen cien besos tuyos.

"Juventud, divino tesoro:
¡ya te vas para no volver!"
El tiempo de la soledad
me ha devorado con su brazo.

Pero... con rayos de esperanza
veo, a lo lejos, a la Reina de la juventud.
¡Acércate, Estrella,
y une nuestro mutuo cariño!

SEI ZAURI

Sei zauri dodaz barruan
maite-ebak zulatuak.
Samiñak biotz-ondoan
sei azkonen eztenak!

Zuloak ez dau negarririk;
neuk bai zotin ixilla,
gaztelu baten gogorrez
ezetzak eragiña.

Urrezko arrats onetan
barriro natorkizu;
emen dozu edontzia:
poza biztu egizul!

Ta nire lorak baturik,
azken-aldiz zakusdaz:
zauri, edontzi ta lorak,
guztiak damotsudaz!

SEIS HERIDAS

Tengo seis heridas en mi interior
raladradas por un amor no correspondido.
¡Cuán amargas son junto al corazón
las púas de seis saetas!

El vacío no llora;
yo sí sollozo en silencio,
sollozo causado por la negativa
de un fuerte castillo.

Voy de nuevo hacia ti
en esta tarde de oro;
aquí tienes la copa:
¡enciéndeme la dicha!

Y, juntando mis flores,
te veo por última vez:
heridas, copa y flores,
¡todas ellas te las doy!

BIOTZA ZATITZEN

Banatzen itzi egidazu, neska,
nire nai zatitu-eziña;
arima Jainkoarentzat dot-eta,
emen daukat biotz gordiña.

Zu maite zaitudazanez gaiñera,
Ama-Lurrak arren dei dagist.
Zelan zatitu nik biotz bakar au?
Ezpaia Espiritu'k dargist:

"Milla pizkunde-urte opa eiozuz
zure Aberri maiteari;
ta beste arenbeste laztan zure
biotzeko Maitederrari!"

PARTIENDO EL CORAZON

Déjame repartir, muchacha,
mi voluntad indivisible;
como el alma la tengo para Dios,
aquí tengo mi robusto corazón.

Además de que tienes mi amor,
mi Tierra-Madre me llama por favor.
¿Cómo voy a partir yo mi único corazón?
El Espíritu es el que me aclara la duda :

"Deséale mil años de renacimiento
a tu amada Patria vasca,
y otros tantos besos
a la Bella amada de tu corazón".

GAUR IKUSI DOT

Gaur ikusi dot leenengoz
alizar bat lurrean;
gaur ezagutu dot zer dan
gelditu yatanean.

Edur betikorren zuriz
eukan bere jantzia;
udako arrats gorriak
aingeru-aurpegia.

Beste mundukoren batek
emon eutsan ederra,
izar-mugetatik aruntz
jesanik barre-eskerra?

Ezin dana, ezin esan.
Aingeru zaitut, neska?
Ez ba'zaiz be... zatorkidaz
maitasunez gainezkal

HOY HE VISTO

Hoy he visto por primera vez
un cometa en la tierra;
hoy he conocido lo que es
cuando ha parado junto a mí.

Su vestido era blanco
como las nieves perpetuas;
y su rostro angelical
como los rosáceos atardeceres de verano.

¿Alguien de otros mundos
le dió la hermosura,
tomando prestado su gracia risueña
desde el más allá de las fronteras estelares?

Lo que no puede ser, no se puede decir.
¿Eres para mí un ángel, muchacha?
Aun si no lo eres...
¡ven a mí rebosando amor!

AINBAT URTE

Ainbat urte igaro yataz
maitasun-jardun leunetan;
zeugaz diardut luzaro
betiko alkar-izketan.

Ezaunak yakuz bideak,
ezaunak zugatz-gerizak;
ba-dakie gure barri
erriko baso-elizak.

Orriz beterik areitzak,
ta neguruntz orri bage...
Noiz izango ete-nozu
zure biotzaren jabe?

Dagitzun argi sasoiak
lotatik iratzarturik;
ta udako goiz zuri batek
mun dagiskula alkarturik!

MUCHOS AÑOS

He pasado muchos años
en suaves ocupaciones de amor;
llevo hablando largamente contigo
en diálogos perennes.

Nos son conocidos los caminos
y las sombras de los árboles;
nos conocen también
las ermitas de nuestro pueblo.

Los robledales están llenos de hojas,
pero en el invierno viven sin ellas...
¿Cuándo llegaré a ser
el dueño de tu corazón?

Alúmbrete el tiempo
despertándote del sueño:
¡que una blanca mañana de verano
nos bese unidos!

JOSITA DAGOZ IZARRAK?

Josita dagoz izarrak
amaitzen ez dan ortzian?
Zer dirausku artizarrak
Gabonilleko gabetan?

Eta zu isilik zayataz
udagoiengo goizetan?
Zu eta izarrak, bardiñak:
beti eresi isilletan!

Izarren argia dozu
zure begi urdiñetan;
izarren soiñu biguna
maillukizko ezpanetan.

Lats-ertzetan dabillanak
ez dauka uraren bearrik;
lur onetan bizi danak,
noiz euki zu lako izarrik?

Izarrak, ortzia ta zu:
biotzaren iru gogo!
Zakidaz zu, ezpai bago,
niretzat zorion oso!

¿ESTAN COSIDAS LAS ESTRELLAS?

¿Están cosidas las estrellas
en un cielo sin fin?
¿Qué nos dice el lucero de la mañana
en las noches de diciembre?

Y tú, ¿estás callando
las mañanas de otoño?
Tú y las estrellas sois iguales:
¡siempre cantando canciones silenciosas!

Tienes luz de estrellas
en tus ojos azules;
música suave de estrellas
en tus labios de fresa.

El que anda en las orillas de los arroyuelos
no siente necesidad de agua;
el que vive en esta tierra,
¿cuándo puede tener una estrella como tú?

Estrellas, cielo y tú:
tres deseos del corazón.
¡Sé tú para mí
la felicidad completa!

OROIPENETAN

Oroipenetan murgildurik
amaitu dot gaurko lana.
Bion inguruan, lo-antzez,
illuntzeko bake dana.

Gaztarocari egun bat zor,
ta ule zuri bat geiago.
Betiko maitasun-gosea
nire baitan bareago.

Gau-ezkillak otsak torrean
otoitzerako deituaz;
ta barrero isilla, bakea,
bakarraldia zainduaz.

Gogoa zuregandik aske:
ez dauugarri-bearrik;
atseden dagidan gaur beintzat
enegan bakar-bakarrik.

Ta nire bake-bitartean,
zakidaz ames-zaintzaille;
biar izan nalkizun, Maite,
oroipenen kontatzaille!

EN RECUERDOS

He terminado mi trabajo de hoy
sumido en recuerdos.
Alrededor de los dos, como durmiendo,
toda la paz del anochecer.

Dejo a deber un día a la época de la juventud,
y tengo una cana más.
El ansia de amar de siempre
está más calmada en mi interior.

En la torre suenan las campanas del anochecer
invitando a la oración;
y, de nuevo, silencio, paz,
cuidando el tiempo de soledad.

Mi espíritu está libre de ti:
no tiene necesidad de incentivos;
descanse yo al menos hoy
solamente en mí.

Y en medio de mi paz,
sé tú el guardián de mis ensueños;
para que mañana te sea, Amada,
el narrador de mis recuerdos.

BIZI

Beti dot biotzean
il baten udabarría,
noizbait maite izan neban
arratsen zoragarria.

Bizi, bizi da bera;
baiña nigan ez. Yadanik,
zelan eroan daiket
nigan maitasun ustelik?

Ez dau inoiz ezautu
udabarría ustelik;
inoiz ez da ezautu
maitasun bako gazterik.

Lotan dagon maite illak
bizitza dau bere baitan;
itxaron dagiodan
zeruko izarren argitan.

Aingeruen ego-otsez
iratzartu zaiteala,
barreiriz poztu daizun
nire bizitza makala!

VIVIR

Siempre llevo en mi corazón
la primavera de una muerta,
el encanto de los atardeceres
que alguna vez amé.

Vivir, sí que vive,
mas no en mí.
¿Cómo puedo llevar ya en mí
un amor corrompido?

Nunca la primavera
ha conocido corrupción;
jamás se ha conocido
juventud sin amor.

La amada muerta que está dormida
tiene vida dentro de sí;
espérole, pues, a la luz
de las estrellas del cielo.

Que te despiertes con el aleteo
de los ángeles,
para que alegres con tus sonrisas
mi débil vida.

NOIZ DAGOZ?

Noiz dagoz baratzeak lorez?,
lizarrak orriz jantziak?
Noizko giltzez edegi dira
maitasunaren ateak?

Urte guztiko sasoietan
beti nago atadian;
bata bestearen ezpaitan
murgildu naz aspaldian.

Bete dagidan onezkero
gogoaz zure ondoan;
alaitu dagigun bizitza
batasunaren gozotan.

Naiko da edurrik, naiko dal
Betorkigu uda ederra,
sugar illeziñaz bizturik
gure biotzen barrena!

¿CUANDO ESTAN?

¿Cuándo están los huertos en flor,
los fresnos vestidos de hojas?
¿Con llaves de qué tiempo se han abierto
las puertas del amor?

En las estaciones de todo el año
siempre estoy en el umbral;
estoy sumergido en esta temporada
en mutuas dudas.

Llene ya mi espíritu
junto a ti;
alegremos nuestra vida
en una dichosa unión.

¡Basta ya de nieve, basta ya!
¡Vénganos el hermoso verano
encendiendo con llama impercedera
el interior de nuestros corazones!

MINUTU BAT

Ez dauisut lartxo eskatzen:
miñutu bat egunean...
zure begiak ikusiz,
zeruak zabal daidazan.

Zure barrea ikusteko,
miñutu bat egunean;
niretzat dozun biotza
guztiz ezautu dagidan.

Miñutu bat egunean...
zure itz leunak entzuteko;
eta aingeruzko laztanez
gure asmoak batzeko.

Zu bage ezer ez bait-yataz
orduak, egun ta urteak,
zu maitatzen biziteko...
urte guztilko uneak!

UN MINUTO

No te pido demasiado:
sólo un minuto al día...
para que, viendo tus ojos,
tenga abiertos los cielos.

Un minuto al día
para ver tu sonrisa;
para que conozca plenamente
el corazón que tienes para mí.

Sólo un minuto al día...
para oír tus suaves palabras,
y para unir nuestros proyectos
con abrazos angelicales.

Ya que sin ti nada son para mí
las horas, los días y los años,
para vivir amándote...
¡ todos los momentos de mi vida!

GOAZAN

"Vamos, Platero..."
(J. R. Jiménez)

Goazan, "Zuri", goazan
mendirantz, Memaiara,
(lagunik ez dot gaur-eta),
lañotan murgilizera.

Ondezik dago Pilartxul
—penaz negarrez lerrak—;
ta gu ba-goaz, astiro...
—penaz zidor ta larrak—.

Bidean gelditu bear!
oiñak burdiñak dira.
Txakurra esan gurarik:
"Eldu gara mendira?"

Zetarako eztabaidan!
Bat falta dan artean,
goazan, "Zuri", barrero
oiñetxera... Goazan...

VAMONOS...

Vámonos, "Zuri", vámonos
hacia el monte, a Memaia
(pues hoy no tengo quien me haga compañía),
a sumergirnos en la niebla.

Es que Pilartxu está indispuesta
—los pinos lloran de tristeza—;
y nosotros dos ya vamos, pausadamente...
—las veredas y pastizales están llenos de pena—.

Tenemos que pararnos en el camino:
mis pies son hierros.
El perro queriendo preguntarme:
"¿Es que hemos llegado al monte?"

¡Para qué vamos a discutir!
¡Ay, nos falta Pilartxu!
Vámonos de nuevo, "Zuri",
a la casa solariega... Vámonos...

ZURE ESKUA

Zure eskua lore batatz
alkartu zanean,
zein zan esku ta lorea
ziur ez nekian.

Ez dot izan arrezkero
barruan bakerik;
zeuk bere ez zurean, nonbait,
ezpaia besterik.

Nire sasoirik onena
agurrez doakit;
zurea nor izango dan
ziur nik ez dakit.

Ta jarraitu ez dagigun
bizitzan lainotsu,
berandu baiño leenago...
zadiz zoriontsu!

TU MANO

Cuando tu mano se unió
con una flor,
no sabía yo con certeza
cuál era la mano y cuál la flor.

Desde entonces, no he tenido paz
en mi interior;
tampoco tú, sin duda, en el tuyo,
a no ser la duda.

Mi época mejor
se me despide;
no sé con certeza
quién será tuyo.

Y para que no sigamos
en la vida nebulosos,
antes de que sea tarde...
¡sé feliz!

ZER DOZU BIOTZEAN?

Zer dozu biotzean?
Itun dozu aurpegia.
Zer dozu biotzean?
Urrundu yatzu argia.

.....

Oi, nik irakurten ba'neki
biotzeko ezkutua!
Zu ezagutzeko ba'nendi
goiz batekoz aingerua!

Chopin'en eresi bigunak
dabiz pianu zurian,
ta udazkenengo illunabarrez
sartu yatzuz biotzean.

Udabarrirantz jo egizu:
or dozu Mozart alai;
berau izan daikezu beti
zure oiñazeen amai.

Barre egin, kantau, lilluratu:
gazte-aroko izakera!
Onela izan zan arrezkero
neska aren biotz minbera.

¿QUE TIENES EN EL CORAZON?

¿Qué tienes en el corazón?
Tienes triste el rostro.
¿Qué tienes en el corazón?
La luz se te ha alejado.

.....

¡Oh, si yo supiera leer
el misterio de tu corazón!
¡Si fuera, al menos por una mañana,
un ángel para conocerte!

Suenan en blanco piano
las suaves melodías de Chopin,
y en un atardecer otoñal
se te han metido en el corazón.

Dirígete hacia la primavera:
ahí tienes al alegre Mozart;
éste puede ser para ti
el fin de tus tormentos.

Reir, cantar, fascinar:
he ahí el modo de ser de la época de la juventud.
Así fue en adelante
el susceptible corazón de aquella joven.

JO DANBADAK, ODEIOK

Jo danbadak, odeiok,
gaurko sargoritan;
eta, bitartean,
itzi naizue baketan!

Busti nagizu, laño,
uda-arrats onetan;
sar zakidaz, leunki,
izatearen muiñetan.

Egin orro, aizebaltz,
areizti-ondoan;
ta otzitu nadin
zure zurrunbilloetan!

Gaur ez dot lagunkide
nire gogokoa;
entzun daidan, beraz,
barruko mintzo gozoa.

Eta Izadi-erdian
nagoan artean,
gaur beintzat, Maiteder,
itzi nagizu bakean!

TOCAD ESTRUENDOS, NUBES

Tocad estruendos, nubes,
en el bochorno de hoy;
y, mientras tanto,
dejadme en paz.

Mójame, niebla,
en este atardacer de verano;
entra en mí, blandamente,
en los tuétanos de mi ser.

Ruge, vendaval,
junto al robledal;
y refréscame
en tus remolinos.

Hoy no tengo como compañera
a mi predilecta;
oiga, pues,
el dulce hablar de mi interior.

Y, mientras estoy
en medio de la Naturaleza,
hoy al menos, Bella amada,
déjame en paz.

ZURE OROIZ

Zure oroiz ames dagit,
ezautu bako kutuna!
Ez dozu erne bizitzan
nire maitasun biguna.

Beti arduraz nenbillen
mendietako bideetan;
zu, barriz, nigandik urrun
erri-barruko kaleetan.

Amaika bidar negarrez
igaro yataz egunak;
zutzaz oroitzeke ñoiz be ez
gazietako gau illunak.

Ñoiz ezaun ba'zenkidaz,
naigabez ilgo nintzake;
ta orain, bizi nazanez,
jarrai dagidan zu bage.

Ames egin ezautzeke:
au bai izarren eresial
Izan dagidan onela
mundu ontako bizial

RECORDANDOTE

Sueño recordándote,
mi desconocida amada.
No has brotado en mi vida
tu suave amor.

Andaba siempre preocupado
en los caminos de las montañas;
tú, en cambio, lejos de mí,
en las calles del centro del pueblo.

Muchas veces he pasado
los días llorando;
pero nunca sin pensar en ti
en las oscuras noches de mi juventud.

Si te conociera alguna vez,
moriría de aflicción;
y, ahora que vivo,
siga viviendo sin ti.

Sofiar sin conocerte:
¡esto sí que es melodía de estrellas!
Pase, pues, así
la vida de este mundo.

AINGERUA

Aingerua dot ondoan:
batek igesi zerutik?
Ezin euki lora onek
min daqian eztenik.

Nok gura ez egun oro
goiz bateko ondasuna?
Orixe da, eurrez, nire
ondoko aingerua.

Edergarri uda-arratsak
damoskuen mosua?
Orixe bera da nire
alboko aingerua.

Izar zurien izpiez,
nok ez egin amesik?
Nok izan nirea lako
aingeruzko maiterik?

Onenbesteko zerurik
izan da inoiz lurrean?
Nor leitekean illezkor
gaztaro laburrean!

UN ANGEL

Tengo un ángel junto a mí:
¿es que uno de ellos ha huído del cielo?
No puede tener esta flor
aguijón que produzca dolor.

¿Quién es el que no quiera todos los días
el bienestar de una mañana?
Eso mismo es profusamente
el ángel de mi lado.

¿Es adorno el beso que nos dan
los atardeceres veraniegos?
Eso mismo es
el ángel de mi lado.

¿Quién no sueña con los rayos luminosos
de las blancas estrellas?
¿Quién tiene una amada angelical
como la mía?

¿Habrá habido en la tierra
un cielo como éste?
¿Quién pudiera ser inmortal
en esta corta época de juventud!

GAURKO NESKATXA

Gaurko neskatxa zuriak
ez dau maite nai mutillik.
Bakarrik bizi daiteke
izarren izpi-zalerik?

Umetxoaren antzera
kolorezko mitxeletaz,
udagoi-arrats-beeretan
ames dagit, Uso, zutzaz.

Biotz-barruko gurariz,
zeure baietza ditxarot;
zukanako lei gozoa
gaztaro osotan bizi dot.

Ta uste bagako aldian,
zabaldu bediz elizan
atadiko ate biak
udabarri-eztegutam!

LA MUCHACHA DE HOY

La blanca muchachá de hoy
no quiere amar a ningún muchacho.
¿Puede vivir solo
uno que ama los rayos luminosos de las estrellas?

A la manera de un niño
con una mariposa de colores,
al caer de las tardes otoñales
sueño en ti, Paloma.

Con ansias del interior de mi corazón,
estoy esperando tu afirmación;
vivo durante toda mi juventud
mi dulce inclinación hacia ti.

Y, en un tiempo inesperado,
¡ábranse en la iglesia
las dos puertas del pórtico
en bodas de primavera!

UDAZKEN - GOIZA

Udazken-goiza, bakez;
goian, azken-izarra
ba-doa, bizi-naiez;
Intzez diz-diz lizarra.

Zure izena ortzian
izar-amesez dakust;
zure itz leuna errekan
arrain-eresiz dantzut.

Ames dagit buruaz
bear baiño geiago;
biotz motel au, barriz,
negute baten dago.

Maitalari-ordua
eldu yat barrenera,
otzez dodan barru au
lantzanez bizkortzera.

Lo-zale zaitudaze,
nire begi nagiok!
Norako itzi nozue
geldi, bide-argiok?

Iratzar, ene gogo!
Jagi zure lotatik:
eroan naian goizak
maitasun-bideetatik!

MAÑANA DE OTOÑO

Mañana de otoño, plácida;
arriba, la última estrella
se oculta, con deseos de vivir;
el fresno está radiante de rocío.

Veo en el cielo tu nombre
con sueños de estrellas;
oigo en el río tu suave palabra
con canciones de peces.

En mi interior voy soñando
más de lo que debiera soñar;
con todo, este apagado corazón
vive como en una invernada.

Mas ha sonado dentro de mí
la dulce hora de los amantes,
para inyectar afecto
a este fondo glacial.

Estáis como adormilados,
ojos míos ¡perezosos!
¿Para qué me habéis dejado en paz,
luces del camino?

¡Despierta, alma mía!
Levántate de tu adormecimiento,
para que la mañana me lleve
por los senderos del amor!

BETI ALAI

Betiko oroipenetan
darabil burua;
eta bere ezpanetan
abesti biguna.

Beti alai bizi da
basarri-neskatxa;
berarentzat landu dau
atsegin-baratza.

Aren oiñetan datza,
legunki, bedartza;
lurpean sartu da, ixil,
elorri-arantza.

Edur-jantziz dagonak
ez dau nai ibarrera;
oztin-zale diramak
zerurantz jokera.

Izadi-maitatzaille,
biotzaren jabe:
zer daikegu gazteok
neska zuri gabe?

Zuek, egon ta itxaron
ñioizko eziña...
Artu dagidan neuk be
bidetxo bardina!

SIEMPRE GOZOSA

Recuerdos de siempre
lleva en su mente,
y en sus labios
una suave canción.

Siempre vive alegre
la joven del caserío;
ha labrado para sí
su agradable huerto.

En sus pies yace, blandamente,
el herbazal;
la espina del espino se ha metido,
calladamente, bajo tierra.

La que se viste de nieve
no quiere ir al valle;
las que son aficionadas al azul del cielo
tienen querencia hacia el cielo.

Amante de la Naturaleza,
dueña de mi corazón:
¿qué podemos hacer nosotros los jóvenes
sin una tierna muchacha?

Vosotros, permaneced, y esperad
lo imposible...
Escoja también yo
el mismo caminito.

MIRARI BAT

Mirari bat ikusi dot
eliza-bidean;
zeru-argia agertu yat
gaur nik zu ikustean.

Gozoagoa oraindik
zure irribarrea;
ta ez da izan ederrago
zuk ni maitatzea?

Urrun oiñaze sakonak!
Zabal garai-otsak!
Gugan galdatu baitira
iru zorionak!

UN MILAGRO

He visto un milagro
camino a la iglesia;
al verte hoy,
se me ha aparecido una luz celestial.

Ha sido aún más dulce
tu sonrisa;
¿y no será más hermoso aún
que tú me ames?

¡Lejos de mí profundos tormentos!
¡Extiéndanse sonidos de triunfo!
Porque se han caldeado en nosotros dos
las tres felicidades.

ZEURE OMENEZ

**Zeure omenez natorkizu
egunik baltzenean,
pozgarri samur zakidazan
illuntze apalean.**

**Negu-areiz antzera nago
oroipen lainotsutan;
kale-txoria lez, iltzeaz,
otsailgo edurtzetan.**

**Izadi dana isilik datza;
lo aizea lerdoian;
giro eze ta eguzki-min
odeiak zeru-goian.**

**Biziaz naiko dot gaurkoz-ta,
itxaropenak naroa,
orduz-ordu, eguerdirantz.
Isilik... Bai; ba-noa.**

**Ta idoro zaitut illuntzean!
Ez dot galdu bizia.
Neska: zakidaz beti nire
bideetako zuzial**

EN TU HONOR

Vengo en tu honor
en el más negro de mis días,
para que me seas tierno consuelo
al anochecer.

Estoy a la manera de un roble de invierno
en recuerdos nublados;
como un pájaro callejero, a punto de morir,
en nevadas de febrero.

Toda la Naturaleza yace en silencio;
el viento duerme en el pinar:
con ansia de una temperatura húmeda y del sol,
las nubes navegan en el alto cielo.

Puesto que hoy tengo bastante con vivir,
la esperanza me lleva,
hora en hora, hacia el mediodía.
En silencio... Sí, ya voy.

¡Y te he hallado al anochecer!
No he perdido la vida.
Muchacha: sé siempre
la antorcha de mis caminos.

BARRIRO BE

Barriro be ba-zoaz
isil-baratzera,
bizitza-naigabeak
bertan lurpetzera.

Joan-etorri zabiz
gogoaz olgetan.
Ba-da maitatzaillerik
zure biotzean?

Maitasunak zaroaz
udako goizetan
bakartasun-altzora
ames bigunetan.

Lore-artean dozu,
zure zain, kutuna,
ondora eldu arte
gabetako illuna.

Lorak, arantzak ta ni:
nor autuko dozu?
Zuk, ez dakizu ziur;
nik, lorak eta zu.

DE NUEVO

Ya vas de nuevo
al huerto del silencio,
para enterrar allí
las penas de la vida.

Andas yendo y viniendo
jugando con tu espíritu.
¿Tienes en tu corazón
alguno que te ame?

El amor te lleva
en las mañanas de verano
al regazo de la soledad
en blandos ensueños.

Entre flores tienes,
en tu espera, a tu predilecto;
hasta que llegue a tu lado
la oscuridad de las noches.

Flores, espinas y yo:
¿a quién vas a escoger?
Tú no lo sabes con certeza;
yo, a las flores y a ti.

ARRATS - BEERAN

Arrats-beerako ordu ozitñok,
ez egin, arren, negarririk:
gaur gaitzen dozuen bizitza,
biar barriro bizirik.

Egazti egun-pozkilleok,
gorde biarko soñuak:
goian darraitse eresiarri,
guztion ordez, izarrak.

Milla kolorezko larrosok,
zuriz dozuez jantziak:
eguneko edergarria
ostu dautsue illargiak.

Ta bitartean, Erregiña,
ez zaitut aldamenean.
Zoaze billa, gau-gerizok,
illunaren ixilletan!

AL CAER DE LA TARDE

¡No lloréis, por favor,
horas azules del atardecer! :
porque la vida que perdistis hoy,
mañana está de nuevo viva.

Aves que alegráis el día,
guardad vuestros gorjeos para mañana:
porque, en vez de vosotras, siguen las estrellas
melodiando en lo alto.

Rosas de mil colores,
estáis vestidas de blanco:
vuestro adorno diurno
os ha robado la luna.

Y, entretanto, Reina,
no te tengo a mi lado.
¡Id en su busca, sombras nocturnas,
en el silencio de la oscuridad!

USO BAKE - GEZNARIOK

Uso bake-geznariok,
erruki zakidaze:
aspaldion beti bai-dot
biotzean oiñaze.

Poza galdu yatanetik,
bakarrik geratu naz;
estu darabilt amasa
ilten nauan itunaz.

Sagartzak lorez darraie
jorrailgo egunetan;
neskatxak jolasez dabiz
bedar bako landetan.

Zelaiko gazteen artean
galdu yatan bakea.
Orra non dakusdan barriz
nire leengo maitea!

PALOMAS MENSAJERAS DE PAZ

¡Palomas mensajeras de paz,
apiadaos de mí!
Porque ha mucho siempre
me duele el corazón.

Desde que perdí la alegría,
me he quedado solo;
me causa agobio
la pena que me mata.

Los manzanales siguen floreciendo
en los días de abril;
las jóvenes andan jugando
en los campos sin césped.

Perdí la paz
entre las mozas de la pradera.
¡Ved dónde veo otra vez
mi amor de antaño!



GURE EGUNAK

Gure egunak ba-doaz,
gaztaro-egun oneik;
bere joan arriñak
ez dausku itzi lorerik.

Penaz ikusten dodaz
latseko ur garbiak;
penaz agur dagiste
udazken-ozkarbiak.

Agur, gazte-uskeriok:
ez dozue etortarik!
Agur, maite-amesok:
ba-zoaze urrindurik!

Nadin baketan nire
gogo naigabetuaz;
ezertxo ez dot gura
bizikera urratuaz.

Zu ondoan izanik,
naiko dot pozgarririk.
Non aurkitu zu lako
beste maitagarririk?

NUESTROS DIAS

Ya se van nuestros días,
estos días de la juventud;
su rápida ida
no nos ha dejado flor alguna.

Me da pena ver
las limpias aguas del riachuelo;
los cielos serenos del otoño
me dicen adiós con melancolía.

Adiós, vanidades de joven:
¡no vendréis de nuevo!
Adiós, ensueños de amor:
¡ya vais alejándoos!

Quede en paz
con mi espíritu afligido;
nada quiero
con una forma de vida frustrada.

Teniéndote a mi lado,
poseo suficiente consuelo.
¿Dónde hallaría yo
otra tan amable como tú?

LOREZ BETERIK

Loitu bagako bideetatik
aske-naiak darraitsu;
areitz-orri urten-barriak
laztan meea daqitsu.

Lorez beterik goiz-sagartzak,
orri бага oraindik;
txori ezagunak ba-datoz
urrungo lurraldetik.

Iruntzez zuri zidor-ertzak;
izar-jantziz bedartza;
mendietatik berantz dator
euzkiaren lorratza.

Zelaietan lore utsa zara,
nire neska liraiña;
zuri begira geldi dago
goiz-artizar oziña.

Zure arnasaz itzartu da
lo egoan pagoa;
soiñu leunez berbitzu dozu
bakez dagon basoa.

Maitasun-egoz narozazu
zu zagozan tokira;
gagozan biok alkarturik
zeruari begira!

REPLETOS DE FLOR

La voluntad de ser libre te sigue
por los caminos que nunca se han manchado;
las hojas de roble recién brotadas
te dan un sutil beso.

Los manzanales tempraneros están repletos de flor,
pero todavía sin hojas;
ya vienen de lejanos países
los pájaros conocidos.

Las esquinas de los senderos están blancos de rocío,
y el herbazal con vestido de estrellas;
de las montañas descende
el rastro del sol.

En las praderas eres pura flor,
mi linda joven;
el azul lucero temprano
está inmóvil contemplándote.

Con tu respiración se ha despertado
el haya que estaba durmiendo;
con suaves cantos has reanimado
el bosque que está en paz.

En alas del amor me llevas
al lugar en que estás tú:
¡estemos los dos unidos
contemplando el firmamento!

GAUR, AUZOAN

Gaur, auzoan, jaiegun-arrats.
Izketan neska-mutillak:
Leiz'ko San Lorentzo eguna
alaitu dau Agorrillak.

Uneetan, ermita-ondoan,
txistua ta damboliña.
Zelai-erdian asetu da
gazte-oiñen dantza-miña.

Guztiak ez dira, osterá,
dantza-zale: lur oneitan
beste egitekorik ba-dago
lilluratuen artean.

Barreirriz alkar ederretsi
ta maite-penak kontatu:
auxe bai dala aspaldi ontan
igandeetako poz-kantul

HOY, EN LA BARRIADA

Hoy, en la barriada, atardecer de fiesta.
Chicas y chicos conversando:
agosto ha alegrado
el día de San Lorenzo, de Leiz.

En tiempos espaciados, junto a la ermita,
el txistu y el tamboril.
En medio de la pradera se ha colmado
el ansia de baile de los pies de los jóvenes.

Sin embargo, no todos son
aficionados al baile:
en esta tierra ya hay otro quehacer
entre enamorados.

Agradar mutuamente con sonrisas
y contar penas de amor:
¡esto sí que es esta temporada
el canto alegre de los domingos!

BETI ZAITUT

Beti zaitut nik begi-aurrean;
goizaldean ta eguerdian;
arrats-beeretan lore-artean,
izarren argitan illuntzean.

Udabarri alaiz jantzi zara;
garitza elduz dozu ule meea;
maillukiz, ezpanak; ta aurpegia
udagoi epelaren barrea.

Aingeruen egoz darabizu
lurak loitu bagako gorputza.
Beste zerbaít bear zeuke orain:
nireganako maitasun utsa!

.....

Zegaitik dogu negu otsailla?,
zer dala-ta euritsu epailla?,
ta jorrailla orritsu? Ez dakit.
Baiña... zakidaz nire Lorailla!

SIEMPRE TE TENGO

Siempre te tengo delante de mis ojos:
al amanecer y al mediodía,
entre las flores al caer de la tarde
y a la luz de las estrellas al anochecer.

Te has vestido de gozosa primavera;
tu blanda cabellera es un maduro trigal;
tus labios, frutales de fresa;
y en tu rostro vive la risa del templado otoño.

Con alas de ángeles llevas
tu cuerpo que nunca ha manchado la tierra.
Ahora necesitarías alguna otra cosa:
¡un amor total hacia mí!

.....

¿Por qué es invierno febrero?
¿Por qué razón lluvioso marzo?
¿Y hojoso abril? No lo sé.
Pero... ¡sé tú mi Mayo!

UDABARRI - ABESTIA

Mutillen kantu alaiak
atsegin beiez neskatxak!

Goizeko Izar-nagusia
begien izpi bizia;
udabarriko argiak
gorriz jantzi dau mendia.

Egunaren biotzean
lotan diardu lerroiak;
makilla-otsez bidean
ikara dira basoak.

Mutillen kantu alaiak
atsegin beiez neskatxak!

Itzi baketan, gazteok,
geldi dagozan gaztaiñak!
Esan barrero alkarri
dozuezan maite-miñak!

.....

Goizeko printza gorriak
urre gorria arratsean.
Kalera dator taldea
mañtasun batzaz pentzetan...

Mutillen kantu alaiak
atsegin beiez neskatxak!

CANCION DE PRIMAVERA

¡Agraden a las muchachas
los cantos alegres de los muchachos!

El sol de la mañana
es vivo rayo de luz;
la luz de primavera
ha vestido de rojo el monte.

En pleno día
el pinar está durmiendo;
con ruido de palos en el camino
se han estremecido los bosques.

¡Agraden a las muchachas
los cantos alegres de los muchachos!

Dejad en paz, jóvenes,
a los castaños, que están quietos.
Contad de nuevo mutuamente
vuestras ansias de amor.

.....

Los rojizos rayos de luz de la mañana
son oro incendiado al atardecer.
El grupo regresa a la calle
pensando en un amor...

¡Agraden a las muchachas
los cantos alegres de los muchachos!

ILLARGI - IZPI BAT

Illargi-izpi bat sartu da
biotzeko barrenean;
ozkarbiaren iruntza
zure ta nire gainean.

Gau-erdiko kanpai-otsak
izketan artu gaitue;
ta betiko izarrak euren
agur leuna damoskue.

Alkarren leia aitatzeko,
ez da illunik ez argirik:
maitasun baten negarra
geugaz daukagu bizirik.

Onela joan-etorri
egunak, gauak, urteak...
Iraun dagiela gure
betiko alkar-izketak!

UN RAYO DE LUNA

Un rayo de luz de luna
ha penetrado en lo profundo del corazón;
y el rocío del cielo sereno
se ha posado encima de ti y de mí.

Las campanadas de medianoche
nos han sorprendido conversando,
y las estrellas de siempre
nos saludan tiernamente.

Para mencionar el anhelo mutuo,
no hay oscuridad ni claridad:
el llanto de un amor
lo tenemos vivo con nosotros.

De esta forma van y vienen
los días, las noches y los años...
¡Que perseveren
nuestros diálogos de siempre!

ZEUGANA

Zeugana natorkizu
uda-goiz onetan,
zeuk atsegindu naizun
nire oiñazetan.

Biotza ausita dakart;
min dot barrenean;
aize-negar dirudit
egun baltzenean.

Zure begi urdiñok
erruki bekidaz,
izar bi dagidazan
amai bagera nigaz.

Zeugan ditxarot, matte,
itxaron-eziña;
zeuk berbiztu baitzeike
gure alkarmiña!

HACIA TI

Voy hacia ti
en esta mañana estival,
para que me deleites
en mis tormentos.

Traigo roto el corazón;
tengo daño en mi interior;
parezco llanto de viento
en el más negro de los días.

Ténganme compasión
esos tus ojos azules,
para que haya dos estrellás
continuamente conmigo.

En ti espero, amada,
la esperanza imposible;
porque tú puedes resucitar
nuestra mutua ansia.

ISIL-ISILIK

Isil-isilik dago
gau zoragarria,
zeruko jabe dala
illargi garbia.

Aren argi zuriaz
aitzak edur dira;
ibarreko lainoa
igo da mendira.

Goiz eta illunite oro
nabil zure billa;
zeure arduraz il da
aurtengo urrilla.

Gabez, barriz, maitea,
ez zoaz iñora:
neu bainozu atean
zure artzainora.

Sar bedi nire leia
zure biotzean:
alkar maite daigula
betiko bakean!

MUY EN SILENCIO

Muy en silencio está
la encantadora noche,
siendo dueña del firmamento
la limpia luna.

Con su blanca luz
nieve son las peñas;
la niebla del valle
ha subido al monte.

Todas las mañanas y los anocheceres
ando en busca de ti;
con celos de ti ha muerto
el mes de octubre de este año.

Pero por las noches, amada,
no vas a ninguna parte:
pues yo soy en la puerta
tu mastín.

Penetre mi ansia
en tu corazón:
que nos amemos mutuamente
en una paz perenne.

BEGI ZORAGARRIENAK

Begi zoragarrienak
zeure berdeok ei'ziran;
eta, ikusiaz batera,
neuk be bardin esan neban.

Berdez landetan bedariza
ta areitzetako kardatxa;
urrez jantzi da garitzan
amabost urtez neskatxa.

Begi berdeak ta ulea:
Begoñatxo'ren altxorrak!
Onen omenez kantari
Elizburu'ko txindorrak.

Baiona-osterakoan,
itun dabil bere errian;
urrezko motots bikaiña
galdu dau gure artean.

Gurutzondo'ko usoak
negar dagitse isilletan...
Begoñatxo'ren urrezta
norbaiten biotz-muiñetan!

LOS OJOS MAS ENCANTADORES

Los ojos más encantadores
decían que eran tus verdes ojos;
y, tan pronto como te los ví,
también yo dije lo mismo.

Verde es la hierba de los campos
y la copa de los árboles;
una muchacha de quince años
se ha vestido de oro en el trigal.

Ojos verdes y la cabellera;
¡ los tesoros de Begoñita!
Los petirrojos de Elizburu
están cantando en su honor.

Al regreso de Baiona,
anda triste en su pueblo;
su preciosa trenza de pelo
la ha perdido entre nosotros.

Las palomas de Gurutzondo
la lloran en silencio...
¡ La gran cantidad de oro (de su cabellera)
ha quedado en el tuétano del corazón de alguien!

ARRATS - APALEAN

Arrats-apalean, udazken-bakean,
aloi, bizkor, argi, txistua zelaian:
izango ete-da "Arin-arin"
neska-mutillen eresi-min?

Ez dakit. Biotzak baiezkoa diñost;
aize-otsak bere, poz-baietza damost.
Utsik egin daike biotzak?
Ezetzear nago... Amesak!

Ta bizkar goren au eguzkitan dago;
oroi dagit nitzaz: geisoik ete-nago?
Au jakinik, ez dot negarrik:
Goi-bidea dakust zabalik!

Gure maitasuna daukagu geisorik!
—zer da maitasuna gogo-bake barik?—
Berak dakarsku zoriona,
bera baita goi-ondasuna!

AL ATARDECER

Al caer de la tarde, en la paz otoñal,
alegre, vivo, claro, el txistu en la pradera:
¿será el "Arin-arin",
el ansia musical de las muchachas lindas?

No lo sé. El corazón me dice que sí;
también el murmullo del viento me lo confirma alegremente.
¿Puede errar el corazón?
Estoy en que no... ¡Sueños!

Mi espalda está al sol;
pienso en mí mismo: ¿estoy enfermo?
Sabiendo esto, no lloro:
porque veo abierto el camino de lo Alto.

¡Es nuestro amor el que está enfermo!
—¿qué es el amor sin la paz del espíritu?—.
Ella nos trae la felicidad,
pues es un bien de lo Alto.

AIZKORA - OTSAK

Aizkora-otsak dira
baso-ozkutuan:
izakiren bat dar-dar
alaka estutan?

Erasten diardue
mendiko pagoak,
gizaldietan zutik
egozan enborrak.

Arreizak eta urkiak
or doaz lurrera,
ta eurakin daroe
geriza ozpera.

Penaz dakusku gure
zugatzen iltzeal
Ez da izan bardin gure
maitasun-galtzea?

RUIDO DE HACHAS

Se oye ruido de hachas
en un lugar oculto del bosque:
¿será algún ser temblando
en apurados quejidos?

Están derribando
las hayas del monte,
los troncos que durante siglos
han estado de pie.

Los robles y los abedules
se abaten al suelo,
y con ellos se llevan
la delicada sombra.

Vemos con pena
la muerte de nuestros árboles.
¿No ha sucedido igual
con la pérdida de nuestro amor?

IL NAITENEAN

Il naitenecm,
ez busti zapirik
alperrik;
ez jarri, arren,
ilkutxa-gaiñecm
lorerik.

Ez erakutsi
guztien aurrecm
penarik;
gorde betiko
gure maitasuna
bakarrik.

Agertu Urtzi'ri
zure biotzeko
samiña,
Goian dagigun
lur ontako bete
eziña.

Lotu eskuan
nirekin Gurutze
Gurena;
ta jaso gorantz
bizitzako otoitzik
onena!

CUANDO YO MUERA

Cuando yo muera,
no mojes pañuelos
en vano;
no coloques, por favor,
flores
encima del ataúd.

No muestres
tu pena
delante de todos:
guarda para siempre
nuestro amor
solo.

Manifiesta a Dios
la aflicción
de tu corazón,
para que tengamos en lo Alto
lo que no se pudo cumplir
en esta tierra.

Atame en la mano
el Santo
Crucifijo;
y eleva hacia arriba
la oración más fervorosa
de tu vida.

AZKEN - AGURRA

Negu-egun laburrak
otzitu zaizanean:
ar egidazuz, eder,
nire udazken-agurrak.

Aitzetako edurra
ur biur daitenean:
ar egidazu, maite,
nire azken-agurra.

Elai-ego samurrak
jolas daitzuenean:
ar egidazuz, eder,
nire udazken-agurrak.

Areitzetan ezkurra
ikusi daizunean:
ar egidazu, maite,
nire azken-agurra.

Biotzeko kutunak
laztandu zaizanean:
ar egidazu, eder,
nire udazken-agurrak.

Niganako ontasuna
galdu daizunean:
gorde betiko zuzon
nire azken-agurra!

EL POSTRER ADIOS

Cuando los breves días invernales
te enfríen:
recibe, hermosa mía,
mis adioses otoñales.


Cuando vaya licuándose
la nieve de las peñas:
recibe, amada mía,
mi último adiós.

Cuando las tiernas alas de las golondrinas
anden jugando junto a ti:
recibe, hermosa mía,
mis adioses otoñales.

Cuando veas
la bellota en los robles:
recibe, amada mía,
mi último adiós.

Cuando el predilecto de tu corazón
te abrace:
recibe, hermosa mía,
mis adioses otoñales.

Cuando pierdas
tu bondad hacia mí:
¡guarda en ti para siempre
mi último adiós!



VDÄZKEN

BIOTZA JAUNAGAN

Itxirristuan, eztabaidan,
biotzeko atea;
aizeak ez daitso emon nai
bear dauan bakea.

Zabaldu ta itxi aizeak
nire ate geiso au:
zartadaka erdi-etenda,
ia Erio'k jo dau.

Burruka luzea darabilt,
gogor arerioa,
kemena guztiz kikilduta,
zauriz josita noa.

Bakar-bakarrik aurkitzen naz,
orain ez dot lagunik:
iges egin dauste guztiak
etsaiak izan ezik.

"Ta, zer egin?", dirauti buruak.
Biotza eztabaidan.
Itxi dagiodan atea,
sar nadin nire baitan.

Ixi, aize!, urrun zakidaz,
amaitu dozu lana;
nire bakartade onetan
ba-dot bear dodana.

Irutan Bakar zaran Ori,
Zeu zaitut Maitasuna,
Biztuera, Argi, Bizia,
benetako Ondasuna.

Zeugan dot, Jainko, uste ona,
Zeu zaitut laguntzaille:
nire aterpe Zeu izanik,
neu naz beti garaille!

MI CORAZON EN EL SEÑOR

Entreabierta, dudando,
la puerta de mi corazón;
el viento no le quiere dar
la paz que necesita.

El viento cierra y abre a su placer
esta pobre puerta;
se halla medio deshecha a bandazos,
casi se la ha arrancado la Muerte.

Ando en larga pelea,
arrecia fuerte el enemigo,
mi fuerza vital está anonadada,
voy cosido de heridas.

Me encuentro completamente solo,
ahora no tengo compañero alguno;
todos se han alejado de mí,
a no ser los enemigos.

"Y, ¿qué hacer?", me dice la mente.
Mi corazón duda.
Cíerrole yo la puerta,
concéntreme en mi interior.

¡Enmudece, viento! ; vete lejos de mí,
has cumplido tu trabajo;
en esta mi soledad
ya poseo lo que necesito.

El que eres Trino y Uno,
Tú eres mi Amor,
Resurrección, Luz, Vida,
el verdadero Tesoro.

En ti espero, Dios mío;
Tú eres mi protector:
teniéndote a ti por cobijo,
¡yo soy siempre el triunfador!

(Publicado en la obra "Dios en la
poesía actual", de la Editorial BAC,
Madrid, 1972).

BIDE BIAK

Burua makurtuta nago
nire jomaldi luzean;
barrua makalduta daukat
egun oroko lanean.

Orduak ez dira gelditzen;
arin joan yataz urteak;
ez dakit zelan izan diran
bizitzako ustebageak.

Egun argi ta lainotsuak,
biak banandu-eziñak;
bata bestearentzat dira
betiko lagun egiñak.

Bide estuak eta zabalak
egitada guztientzat;
baiña, zabalak izamarren,
geienak estu niretzat.

Emon daiodazan eskerrak
Goiko gure Jaun onari;
eta jarraitu dagiodan
Salbamen-bide estuari.

LOS DOS CAMINOS

Estoy con la cabeza inclinada
en mi largo caminar;
tengo mi interior debilitado
por el trabajo diario.

Las horas no se paran;
los años se me han ido rápidamente;
no sé cómo han sucedido
las sorpresas de mi vida.

Hay días claros y días sombríos,
ambos inseparables;
son el uno para el otro
compañeros perennes.

Hay caminos angostos y caminos anchos
para todas las acciones;
sin embargo, casi todos ellos
han sido estrechos para mí.

Dé por ello gracias
a nuestro buen Señor de lo Alto;
y siga también en adelante
el camino estrecho de la Salvación.

BENETAKO ZORIONA

Izar igeskor bat lez,
arin nire gogapena;
jakin bai nora doan
nire lagunik onena?

Bere egoetan doa
joanaren oroipena;
gaitz yako jaristea
gerokoaren baimena.

Guztiok diardugu
zorionaren atzean;
Andera ori, alan be,
egunez-egun aidean.

Aldizka ba-dakarstaz
bere gorantzi bigunak;
biaramon-ostean
nirekin agur illunak.

Betiko zorionik
ez dago mundu onetan;
itxaron dagiodan
bizitza illezkorrean.

LA VERDADERA FELICIDAD

Como una estrella fugaz
corre veloz mi pensamiento;
¿sabr  a d nde dirigirse
el mejor de mis amigos?

En sus alas transporta
el recuerdo de lo pasado;
pero le es dif cil conseguir
la aquiescencia del porvenir.

Todos andamos
buscando la felicidad;
sin embargo, esa Se ora
anda de d a en d a en el aire.

Ya me trae, s , por turnos,
sus tiernos saludos;
pero al d a siguiente
me quedo con sus tristes despedidas.

No puede hallarse en este mundo
felicidad eterna;
esp rela
en la vida inmortal.

BETIKO OROIPENETAN

Gertu nirekin sareak,
otzara eta amuzkia.
Neugaz daroat asmo bat:
neure arraintza andia!

Agur bide-gurutzetan
goizaldeko goi-izpiak;
adi-adi dagokidaz
bideetako txoriak.

Errekako arraintxoak
or-emenka jolasetan;
ez dabe nitzaz ezer nai:
euren bizia uretan.

Gure bizitza guztia
egintzen gomutapena.
Zelan jakin gerokoa,
gure egunen azkena?

Aske garean ezkeru
bizia dogun artean,
jarrai dagidan orain lez
betiko oroipenetan!

EN MIS RÉCUERDOS PERENNES

Tengo preparadas las redes,
la canasta y el cebo.
Llevo mi plan:
¡mi gran pesca!

En las encrucijadas me saludan
los rayos solares del amanecer;
los pájaros de los caminos
me miran fijamente.

Los pececillos del río
juegan a "ahí y aquí";
no quieren saber nada de mí:
su vida está en el agua.

Toda nuestra vida
es un recuerdo de nuestras acciones.
Pues, ¿cómo saber el futuro,
el fin de nuestros días?

Puesto que todos queremos ser libres
mientras vivimos,
¡siga como ahora
con mis recuerdos perennes!

ORREAGA

(778)

Goizeko eguzkia
— amapola dan gorria! —,
goizeko eguzkia
begien argi bizia.

Gure mendi-gaiñetan
— areiztiaren mardulal —
gorputzari borborka
dario eusko-odola.

Goizeko eguzkia
arratseko odol gorria;
mendien gaillurretan
gudari-biotz gorria.

Gau-txori moko makur,
illunen bakarzalea:
eroan egiozu
bitxitzat amapolea.

Goizeko eguzkia
guztion argi bizia;
euskaldunen odola
askatasun-soin jantzia!

RONCESVALLES

(a. 778)

El sol de la mañana
— ¡ qué roja la amapola! —,
el sol de la mañana
viva luz de los ojos.

En las cumbres de nuestras montañas
— ¡ qué robustos los robles! —
un cuerpo mana a borbotones
sangre vasca.

El sol de la mañana
sangre roja del atardecer;
en las cumbres de los montes
un corazón incandescente de soldado vasco.

Ave nocturna de pico corvo,
solitaria de las noches:
llévale de adorno
una amapola.

El sol de la mañana
viva luz de todos;
la sangre de los vascos
es el vestido del tronco de la libertad.

GIZON ARROA

Gutziz andi dalakoan
tente doa gizona;
bera da bakarrik, antza,
buru izan nai dauana.

Ondo dirautse guztiai,
dana agintzaria...
Zelan jadetsei, bestela,
nagusi-guraria?

Gazte askoren biotza
aren atzean doa;
igesi doa, ostera,
on dan sen onekoan.

Oiñaztuaren argia
ikusi dot zeruan:
pentzakeraren antzera
amildu da lurrean.

Gizon arroa, bakarrik,
jausita geratu da:
lurrean datza azkenez
arnasea etenda.

Jauna da gure artean
ori egin dauana.
Aintza Berari goietan,
gora apala dana!

EL HOMBRE SOBERBIO

Va tieso el hombre
como si fuera algo grande;
sólo es él, al parecer,
el que quiere ser jefe.

Dice bien a todos,
es todo promesa...
¿cómo podría conseguir, de lo contrario,
su deseo de ser el superior?

El corazón de muchos jóvenes
va detrás de él;
pero el de recto juicio
huye de aquél.

He visto en el cielo
la luz del relámpago:
se ha hundido en el suelo
a la manera de un pensamiento.

El hombre soberbio
ha quedado solo, caído:
al final queda tendido en el suelo,
con el aliento cortado.

Es el Señor
el que ha hecho eso entre nosotros.
¡Gloria a El en las alturas,
arriba el humillado!

EURI-TANTAK

Uda au negu lez yat
urte-biotzean;
udazkena datorkit
ia ez-ustean.

Urteen udazkena,
aldi-igarotea:
zabaldu egin bear
barruko atea!

Euri-tantak leioan
gabeko soñnutzat;
eurak datoz ondoen
barruko laguntzat.

Ba-datoz ta ba-doaz:
bizitza-irudia;
bardinisu izaten da
karpai-durundia.

Ikarea sartu yat
biotz-barrenean;
taupadaka narabil
iruntsi naiean.

Baiña, nire utsean,
ez nago bakarrik;
Jauna neugaz izanik,
zeri nik bildurrik?

Atsedean, ene biotz;
jarrailu bakean.
Jauna bego nirekin
arnasa betean!

GOTAS DE LLUVIA

Este verano es invierno para mí
en la mitad del año;
me viene el otoño
casi impensadamente.

Es el otoño de los años,
el paso del tiempo:
¡ tener que abrirle la puerta
de mi interior!

Siento gotas de lluvia en mi ventana
como música nocturna;
yo las recibo
como a compañeras de mi interior.

Vienen y van:
son la imagen de la vida;
suenan casi igual que
la resonancia de la campana.

Un estremecimiento ha invadido
el fondo de mi corazón;
me anda dando latidos
queriendo tragarme.

Pero, en mi nada,
no me hallo solo;
estando el Señor conmigo,
¿ a qué temeré?

Descansa, corazón mío;
sigue en paz.
Esté el Señor conmigo
animándome plenamente.

ZORION · GOGOIA

Nok ez maite gaur
basarriko
zorion-bakea?
Nok ez atsegin
areiztian
udako aizea?

Elai arñok:
ez otzitu
aurren lo beroa;
gorde legunki
atadiko
abitxo gozoa.

Doala bizkor
bideetako
motor-soiñu motza!
Entzun dagidan
bedartzetan
beien txilin-otsa.

Ez negar erain,
neskatillok,
aizoko mutillai;
zabal biotzak
inguruko
maitasun zintzoai.

Esan guztiari
deardarka
barruko asmoa:
"Bego gurekin
etenbaga
zorion-gogoai!"

DESEOS DE FELICIDAD

¿Quién no ha de amar actualmente
la agradable paz
de la aldea?
¿A quién no ha de agradar
en el robledal
el viento estival?

Veloces golondrinas:
no enfriéis el tierno sueño
de los niños;
guardad suavemente
el dulce nidito
del portal.

¡Vaya veloz
el arisco sonido de los motores
de las carreteras!
Oiga en los hierbales
el tañido de las campanillas
de las vacas.

No hagáis llorar,
muchachas,
a los jóvenes de la vecindad;
abrid vuestros corazones
a los fieles amores
de vuestro alrededor.

Proclamad a todos
el proyecto
de vuestro interior:
"¡Sea con nosotros
perenne
el deseo de felicidad!"

ZERU - LURREN ARTEAN

Gaurko lana osotzen
diardut egunez,
nasai geratu naiten
eguneko gauez.

Giza-arazoak itziz,
sar nadin barruan,
Goiko itzak diraustama
artez entzun daidan.

Leengoari begira
betirauna dakust;
aldi bion uneak
dar-dar eragin daust.

Oraingo egin onak
geroko irabazi;
izan dakidazala
beste bizitz-argi.

Zeru-lurren artean
zubia izanik,
beioaz nire oiñak
bide orretatik.

Lagun zakidaz, Jauna,
aurreko bizitzan,
besarkatu zaidazan
betiko bestean.

ENTRE EL CIELO Y LA TIERRA

Estoy terminando
mi trabajo de hoy,
para descansar tranquilo
en la noche de este día.

Dejando a un lado los quehaceres humanos
penetre en mi interior,
para que oiga rectamente
lo que me dice la palabra de lo Alto.

Mirando a lo pasado
veo la eternidad;
el espacio de esos dos tiempos
me ha hecho temblar.

Las acciones buenas de ahora
son méritos para después:
que ellas me sean
luz de la otra vida.

Teniendo un puente
entre el cielo y la tierra,
vayan mis pies
por ese camino.

Acompáñame, Señor,
en lo que me resta de vida,
para que te abrace
en la otra eterna.

IZADIAREN ERDIAN

Ziri-ziri aizea
pagadian,
zuri-zuri lainoa
ibarrean,

iruntzaren izpiak
orrietan.
ardien arran-otsa
zelaietan,

Anboto'ko gaillurra
urrunean,
txakurraren ausiak
atarrean,

latseko ur-negarra
urr-urrean,
eguzkiaren munak
tantaietan,

kukuaren leen-deiak
areitzean...
Izadia kantatzen
isillean.

Bizia somatzen dot
inguruan,
bakearen arnasa
gorputzean.

Zure Espiritua,
bitarteon,
sar dakidala, Jauna,
biotzean!

EN MEDIO DE LA NATURALEZA

Imperceptiblemente el viento
en el hayal,
blanquísima niebla
en la vega,

rayos de rocío
en las hojas,
sonido de cencerro de ovejas
en las praderas,

la cumbre de Anboto
a lo lejos,
ladridos del perro
en el portal,

llanto de agua del arroyo
muy cerca de mí,
besos del sol
en los árboles bravíos,

las primeras llamadas del cuclillo
en el roble...
La Naturaleza canta
reservada.

Percibo vida
en mi alrededor,
el sople de la paz
en mi cuerpo.

Mientras tanto,
¡que tu Espíritu,
Señor,
penetre en mi corazón!

IL, BAIÑA BIZI

Aizeak odei baltzizkak
daroaz goietan;
jausi ta jausi euria
areitz-orrietan.

Gaur be geldiro illundu da
gure baratzean;
egunak negar egin dau
agur egitean.

Illunetan geratzean
nire inguruan,
abotsak auxe ziraustan
nire barrenean:

"Ilteko jaioten gora,
gau-egun antzera;
baiña biziteko ilten
bizitza betera".

MORIR, PERO VIVIR

El viento transporta
nubes negruzcas por los altos;
cae sin cesar la lluvia
en las hojas del roble.

También hoy ha oscurecido
lentamente en nuestro huerto;
el día ha llorado
al despedirse.

Al quedarme a oscuras
en mi alrededor,
una voz me decía
en mi interior:

"Nacemos para morir,
a semejanza de la noche y del día;
pero morimos para vivir
a plena vida".

XVI-XVII GARREN MENDEKO
BIZKAIERAZKO MAITASUN-OLERKI BAT

(Elorrio'ko elizako liburu baten aurkitua)

Ene veguiacaz vioçeen artean
Errencore andiak erneçitean.

Onerestea daucat viozean sarturik,
Linda eder galampat causea yçanic.
5 Veguiratu neguion ta egumbatean
Errencore (andiac erneçitean).

Vioza veguien dago querella,
Çana librea ahec gayti catigaçidilla,
Ta atera ebelaco vere eserean
10 Errencore (andiac erneçitean).

Veguiak deuse egozten vioçari culpea,
Açanic jaiçoçala onnerestea,
Ta açaytirren aditu çerren çirean
Errencore (andiac erneçitean).

Gaurko erataraz:

Ene begiakaz biotzeen artean
errenkore andiak erne zitean.

Onerestea daukat biotzean sarturik,
linda eder galant bat kausea izanik.
5 Begiratu negion ta egun batean
errenkore (andiac erne zitean).

Biotza begien dago kereilla,
zana librea ahec gaiti katiga zidilla,
ta atera ebelako bere eserean
10 errenkore (andiac erne zitean).

Begiak deutse egozten biotzari kulpea,
açanic jaiço zala onnerestea,
ta açaytirren aditu zerren zirean
errenkore (andiac erne zitean).

UNA POESIA DE AMOR BIZKAINA
DEL SIGLO XVI-XVII

(ballada en un libro de la iglesia de Elorrio) (1)


Entre mis ojos y mi corazón
suscitáronse grandes rencores.

En el corazón tengo el amor metido
siendo la causa una linda, bella y esbelta.
5 Le miré y en cierto día
suscitáronse (grandes rencores).

Quéjase de los ojos el corazón,
que el que era libre por ellos está preso,
y porque de su casa le sacaron
10 suscitáronse (grandes rencores).

Los ojos echan la culpa al corazón,
diciendo que de él nació el amor,
y que por eso prestaron atención por qué eran
y suscitáronse (grandes rencores).

(1) Véase "Textos Arcáicos Vascos", de Luis Mitzelena.
Traducción castellana del P. Santiago de Onaindía en
"Las cien mejores poesías de amor de la Lengua Vasca", págs.
14-15, con algún retoque.



ERITZIAK
(ZERBAIT LABURTUTA)

ORBELAK'I buruz

"(...) ezin uka au ere: gure Kerexeta'ren poesiari, euskal-usaia dariola lau aldeetatik. Gure garo-usai, gure mendi-usai; eta odoldio eze bigun ankapean... Argiz, berriz, argi xamur, goizabarreko, intzez busti, larrosa-kolore, ameslari...".

LEKUONA, APAIZ EUSKALTZAIÑA
("Itzaurre-orde"-an)

* * *

"(...) zerbait igertzen diot beñipein Kerexeta-ren doiñuari: berria dela eta batez ere bere-berea duela. Iru sailletan berezi ditu olerkiak, beti labur eta txairoak: Izadikoak, Maitezkoak, Biozkadak. Gaiak, ikusten duzunez, nonnaikoak, euskal-olerkarien kuttunetakoak dira. Baiña ezitirudi emen, inolaz ere, betiko leloa entzuten ari gerarik; betiko leloa bada ere, Kerexeta-ren eskuz antzaldatua ageri baitzaigu. Sorgindua ere esan diteke, edertasun-sorginkeriz, sorgiñak eta sorgiñen erregiña ezpaitabiltza olerki auetatik urruti:

*Anboto'ko Anderea
batzarre-buru nagusi.*

Olerki oin-arin auetan iñoren itzalik ikus baditeke, "Lauaxeta"-rena dela esango nuke, *Arrats-beran-go* Lauaxeta'rena, euskalkia delako edo. Erri-gaiak, erri-apaindurak beti oiñarri ta, alaz ere, ezlitugu maiz aski arpegi ezagunak ezagutzen. Ain daude sotildurik, itxuraldatuak, eder-laiñoz inguraturik. Eta bertso biribilletan emanik, onako auek bezala:

*Alako baten, txistu min batek
iratzartu dau goizeko isilla:
azkon zorrotz bat arin-arina
urten da, egaz, norbaiten billa.*

Gogoz eta nekerik gabe irakurriko ditu edonork liburu onetako olerkiak (...)."

LUIS MITXELENA
("Egan", 1959, 1-4, 99-orri)

* * *

"(...) Artu dot zure liburuska txairoa eta bai gogoz irakurri ere. Opilla bezin gozo ta gustogarri aurkitu dot (...). Danak dira errazak, ariñak eta gustora irakurteko modukoak. (...) Bat edo beste aipatzekotan, *Iguriako errotan*, *Zorion-billa* ta *Gabeiko bederatzietan* autatuko nituzke. Baiña esan deutsudan lez, danak be gozo-gozoak ta atsegiñak yataz.

FR. LUIS VILLASANTE
(Arantzazu, 1959'ko Martiak 16)

* * *

"(...) Olerki guztiak ditut polit eta gogoko; azkenengo biak bereziki. (...)."

ALTUBE'TAR SEBER
(Gernika, 1959, Maiatzak 2)

* * *

"(...) Olerkariaren elburua ez ote da, irakurle edo entzuleai atsegin ematea? Orrela baldin bada, zearo beteta dago auen bidez gugaz. Euskera, gañera, ez da zalla emen erabiltzen dana, ta orregatik jarraiki irakurtzen dira bertso bikain guzti auek".

"Euzko-DEYA"
(Paris, 1 Mayo 1959, 5-orri)

* * *

"(...) Olerkari-uts dogu gure Kerexeta. Olerkaria. Ez neurtizgille, oraingo "olerkaritza"ko asko bezela.

Ezebezetik lez, berez-berez, ateraten ditu olerkiak. Auxe baita benetako olerkari izatea. Arinak, txanbelinak, labur eta polito idatziak. Egaztada arrotzez dardarazten dute biotza, irakurri-ala, kaden ezaungeen laztana gogoan ezarririk.

Irakurri baiño ez bait-dago "Ego-aize". Gure basoetako olerkiaren kaden gozatsu guztia bildu bait-du, samurkiro ta labur, olerkitxu dotore ontan. Baso-artean jaio, azi ta bizi izan gareanok ondo bait-dakigu Euskalerrri'ko udagoena dan olerkoia. "Ego-aize"n, alperreko itzik gabe azaltzen bait-digu Kerexeta'k, olerki utsez, basoen udagoeneko olerki ezea. Onexek egiten dau ba, au, Elorriotar au, olerkari jator: clerki utsa idazteak.

"Ego-aize" bakarrik aipatu dut, baina bardin dinot beste orogaitik ere. Bakartxu bat ez bait-dago gauzeztantzat bazterregarri danik.

Beste olerkariaren baten antzik ote dunentz? Bai. "Lauaxeta" naigabetuak algaindu zidorretaz ibili dala dirudi, Elorrio aldeko baso ezeetan zidarrezko eskuareaz urrezko *orbela*k bazten. (...).

AURRE-APRAIZ
("Irrintzi", Caracas, 1961, 6-orri.)

* * *

"Gure olerkariaren maixu dan, "Orixe" jakintsuari sarritan entzun eta irakurri izan diogunez, iru doai bear ditu Olerkariak, olerkari ona izateko: *adimena, irudimena* eta *biotza*.

Baldintza bearrezko eta naigarri aben jabe bai-dala, ardurarik gabe esan dezakegu ORBELAK izeneko olerki-liburuxoaren egille dan Kerexeta'tar Jaime. Amaipen au atera degu, liburuxoak dakarzkin olerki guziak arduratsu irakurri ta ausnartu ondorean.

"Liburu atsegiña, esku-artean daukaguna. Egilleari berez dario olerkia, eguzkiari argia iduri, biotzez ta oldozpenez *gaiñezka*", dio olerki-gaietan aditzaile ona dan Onaindia Abak, liburu-azal ostean irakurri dogun bere irizpidedun lerroetan. Eta onen urrengo, onela dio Mitxelena kritikalarri arduratsuak: "Nor ezipanatz ere, auxe esan dezaket irakurri ditudan Kerexeta'ren olerkiez: Sail onetan maizegi gertatzen ezтана, berak ikusari ta ikusari dagokio eta, barrengo deiari erantzunaz, bere aoz mintzatzen zaigu, mintzo erne, ugari eta atsegiñez".

Ondoren, "Aurraitz"-ek: "Zeure olerkiak dira "Euzko-Gogoa" aldizkarian atsegiñez irakurri oi ditudanak, eta au dala-ta, zure besteak ere ezagutu nai nituke" (...).

Eta Aita Onaindia'k: "Poesi jatorra, gaurkoa, barrukoia, bere-berea, lirika-saillekoa; bizitasunez, irudiz eta biotz-zirra leunez gatzatua; arin, zuri ta argi diñosku esan nai dauksuna" (...).

ZELETA
("Oletari", 1961, 7-9, 220-orri.)

BITARGI'ri buruz

"Euskal-lirikan, Lizardi'ren urrengo, Kerexeta'ren BITARGI dut atsegiñen". (Nikolas Ormaetxea, "Orixe"-ren itzak Zaitegi'tar Jokin abade jaunari).

* * *

"(...) Itxura apain baiño apaiñagoan dator, mamiari dagokionez. Lauaxeta zenaren *Arrats-beran-en* eite garbia duela esango nuke.

(...) Era ikasian eta jakintsuro, erri-poesiaren bideetara jo du itxuraz Kerexeta-k eta zentzuen bitartez atzematzen duena da nolazpait ere biotzeko izkuntzen argibide eta ezaugarri. Elkarren ondoan datoz irudi biziak, esaldi laburretan, ur-egiko lizar naiz makal lerdenen andanak bezala. Zeruan eta olerkariaren gogoan ezta gelditzen giroen eta orduen dantza ariña: goizeko eguzki argia, laiño euritsua, illunabar xamurra, izar-zoen keiñua.

Norbaitek esango du agian aire bat darabillela beti Kerexeta'k, naiz doiñua zertxobait aldatu. Egia izanik ere, nork egin dizaioke olerkariari gogoan eztena kantatzerik? Beste-lako soiñurik nai duenak, jo dezala berak danboliña".

LUIS MITXELENA
("Egan", 1960, 1-2, 110-orri.)

* * *

"Onatz nundik Kerexeta'k olerki-liburuxo berria bialtzen digun. Udaberriaren irriparez gaiñezka datorkigu oraindik orain irarkolatik atera berria dan idaziño apain au: BITARGI, ORBELAK'en anaitxo txikia. Baiña nolako anaitxo! Soiñekoz apaiñagoa; gogoz, barriz, neurri batekoa edo garaiagoa. Gogara jaso ditu Aurre-Apraiz olerkari aundiak, ORBELAK'en doai ukatu eziñak, olerkari bati dagokion esku-ikutu ederrez. Zeiñek obeki ulertu olerkari batek baiño beste baten gogo-giroa? (...). Liburu ontan ere, "Elizburuko Txindorra" kantari pin agertzen zaigu, piña ta bikaiña: maitasuna darabilki kantu-gai liburu guztian. Eta nola abestu digun maitasun ori! Nekez arkituko dituzute gai ortaz egindako olerki ederragoak atzerrietako olerkariaren artean ere. Izan ere, maitasunak eragiten ditu olerkirik onenak, batez ere maitaria gaztea danean. Izan ere, Elizburuko Txindorrek gaztaroan egin ditu olerki ederrok: "Maitasunari gaztaroan abestu ezik, noizko itzi?". Olerki sakonak, laburrak izan arren. Gaurko lirikak ezin du egari (ondo eroan) olerki luzerik. Izkera ezin errexago eta olerkoitsu batean ematen dizkigu Kerexeta'k bere biotz taupa-

dak maitasunez gaiñezka. Izadiarekin bat eginda bizi zaigun olerkari au, ezin da bere olerkietan munduak damaizkigun edertasunetik aldendu: andixek artzen du bere arnasa oler-ats argienez bere irudi ta esakerak jazteko. Irakurri egizuz, irakurle, "Ogeitalau urtez", "Josita dagoz izarrak?", eta gaiñerako guztiak, eta or ikusiko duzu zeorrek diñodana egia dala. Baiña bein, orraitino, bere "nai zatitu-eziña" banatu egiten da, beste maitasun bat abesteko, guk ain gogoan daramagun maitasuna:

*Milla pizkunde-urte opa eiozuz
zure Aberri maiteari;
eta beste arenbeste laztan zure
biotzeko Maite derrari!*

IBINAGABEITIA TAR ANDIMA
(“Irrintzi”, Caracas, 1961, 6-orri.)

* * *

“Leen, ORBELAK’az egin euskunez, orain BITARGI’az asetu dauskaz gogoak gure Parnasoan aurrelari iabilkun Kerexeta olerkari bikainak.

Benetan biotz-eragingarriak abade iator onen olerkiak. Liburu apain ontan Maitasuna dau Muse. Bearbada gogo-esturen batek, apaizek egiteko olerkiak ez dirala oneik, esango dau. Apaizak be biotz-jaube dira beste edonor lez, eta gotargiaren biozkadak ederti-bidez azaltzeak ezer txarrik dankanik inok ezin esan daike. Olerkari bikain onek alperreko herba barik, labur ta iator, olerki utsez, ingirutzen dauz Izadiak eragiñik bere gogo-zelaietan sortu amets eta urduritasun gardenak.

Lauaxeta naigabetuari zoritxar gorrienak esku samurretatik ankerkiro bere lirea urratu eutsan ezker, gure artean ez dogu izan au, elorriotar au, bezin olerkari iatorrik. Onen olerki bakoitza irakurri-ala egaz egiten dau gogoak ludiz bestaldeko zelai ezaungoetara ta kaden arrotz batek laztantzen dau leunki-kiro biotza. Irakurri baiño ez dago ahapaldi au:

*Goizalde; lainoz illun;
zurrunbilloz edur-matazak;
lotan ibar osoa;
kurrinkalari itsas-antzarrak...*

Kerexeta lako olerkari olerkarien bearra ba-dauko gure euskera maiteak. Aldi ontan bertsogille ugari doguz bazterretan, baiña olerkaririk gutxi; eta aunegandik asko ikasi daikee olermenak barruan zirri dagitsen gazteak.

Olerkia ez da neurtitza, apainago agertzearren ezarten iakon iantzia baiño. Olerkia neurri ez-oskide barik bere izan daiteke; ta neurri ta oskide apainakaz olerkirik ez izatea be bai. Kerexeta olerkari utsa dogu, ba. Olerki utsaren olerkia. Eta alde oneixek iarten dau orain ditugun olerkari guztien au-

rrean. Nok idazten dau aldi ontan, gurean, au lako neurtitzik? Ots:

*Udazken-goiza, bakez;
goian, azken-izarra
ba-doa, bizi-naiez;
intzez diz-diz lizarra.*

ORBELAK lez, olerki goitarrez orniduta dago, ba, BITARGI; eta ederra, bikain ta euskera apain maite ba’dozuz, irakurle, ez gera olerki-liburu au erosi barik geratuko.

Eta zorion ugariak, Kerexeta, adiskide maite orri, gure gogoen eder-egarri asekaitza onen ontzi apaincan eta ain urgozo baizen gardenaz ase dauskuzulako”.

AURRAITZ
(“Oleri”, Larrea-Zornotza, 1960, 7-9)


* * *

AZTERTZAILLEENTZAK GOGOKOENAK ORBELAK

Ego-aizea (12).
Zorion-billa (42).
Igurria’ko errotan (48).
Gaztearen negarra (52).
Eiztari naibagetuari (58).
Gabeko bederatzietan (68).
Gabonzaar-gabea (78).
Arantzazu, Arantzazu...! (80).

BITARGI

Kanpai-otsa (84).
Goizalde (86).
Abesti-miñez (88).
Eurria eten бага (94).
Ogeitalau urtez (100).
Aibat urte (110).
Miñutu bat (122).
Jo danbadak, odeiok (130).
Udazken-goiza (138).
Zeure omenez (144).
Arrats-beerako (148).
Uso bake-geznariok (150).
Zeugana (164).
Il naitenean (174).
Azken-agurra (176).



AURKIBIDEA (INDICE)

ORBELAK

Izadiakoak (De la Naturaleza)	7
Nok jakin? (¿Quién sabe?)	8
Eguna ta gaua (El día y la noche)	10
Ego-aizea (El viento sur)	12
Ipar-aizea (El viento norte)	14
Udagoi-gau batez (En una noche de otoño)	16
Negurako deia (Invitación para el invierno)	18
Edurtzan (En la nevada)	20
Udabarrian (En la primavera)	22
MAITEZKOAK (Amatorias)	25
Zure agurra (Tu saludo)	26
Zure ondoan (Junto a ti)	28
Urki-artean (Entre abedules)	30
Agur-izarrak (Las estrellas del adiós)	32
Ezpaia (La duda)	34
Maitatzaille-artean (Entre enamorados)	36
Begi batzui (A unos ojos)	38
Ez neban jakin (No lo supe)	40
Maitasun-eske (En busca de amor)	42
BIOZKADAK (Corazonadas)	45
Bizitz-aroak (Las edades de la vida)	46
Iguria'ko errotan (En el molino de Iguria)	48
Zoriona ta Ituna (La Felicidad y la Tristeza)	50
Gaztearen negarra (El llanto del joven)	52
Aspaldikoa (La canción de antaño)	56
Eiztari naibagetuari (A un cazador apenado)	58
Zelaietakoa (Canción de las praderas)	60
Jolasetan (Jugando)	62
Gurariak (Deseos)	64
A zan a...! (¡Aquello sí que era...!)	66
Gabeko bederatzietan (A las nueve de la noche)	68
Memaria'n (En Mema(r)ia)	72
Katuari (Al gato)	74
Puilla'ko iturria (La fuente de Puilla)	76
Gabonzaar-gabea (En la noche de Nochevieja)	78
Arantzazu, Arantzazu...! (¡Arantzazu, Arantzazu...!)	80

BITARGI

Kanpai-otsa (Sonar de campanas)	84
Goizalde (Amanecer)	86
Abesti-miñez (Con ansias de cantar)	88
Zeuri, Jainko (A ti, Dios mío)	90
Artega dot biotza (Tengo inquieto el corazón)	92
Euria eten бага (Llueve sin cesar)	94
Begi biok (Esos dos ojos)	96
Udabarri-biotz bat (Un corazón de primavera)	98
Ogeitalau urtez (A los veinticuatro años)	100
Zeuretzat (Para ti)	102
Illuntzean (Al anochecer)	104
Sei zauri (Seis heridas)	106
Biotza zatitzen (Partiendo el corazón)	108
Gaur ikusi dot (Hoy he visto)	110
Ainbat urte (Muchos años)	112
Josita dagoz izarrak? (¿Están cosidas las estrellas?)	114
Oroipenetan (En recuerdos)	116
Bizi (Vivir)	118
Noiz dagoz? (¿Cuándo están?)	120
Miñutu bat (Un minuto)	122
Goazan (Vámonos)	124
Zure eskua (Tu mano)	126
Zer dozu biotzean? (¿Qué tienes en el corazón?)	128
Jo danbadak, odeiok (Tocad estruendos, nubes)	130
Zure oroiz (Recordándote)	132
Aingerua (Un ángel)	134
Gaurko neskatxa (La muchacha de hoy)	136
Udazken-goiza (Mañana de otoño)	138
Beti alai (Siempre alegre)	140
Mirari bat (Un milagro)	142
Zeure omenez (En tu honor)	144
Barriro be (De nuevo)	146
Arrats-beeran (Al caer de la tarde)	148
Uso bake-geznariok (Palomas mensajeras de paz)	150
Gure egunak (Nuestros días)	152
Lorez beterik (Repletos de flor)	154
Gaur, auzoan (Hoy, en la barriada)	156
Beti zaitut (Siempre te tengo)	158
Udabarri-abestia (Canción de primavera)	160
Ilargi-izpi bat (Un rayo de luna)	162
Zeugana (Hacia ti)	164
Isil-isilik (Muy en silencio)	166
Begi zoragarrienak (Los ojos más encantadores)	168
Arrats-apalean (Al atardecer)	170
Aizkora-otsak (Ruido de hachas)	172


Il naitenean (Cuando yo muera)	174
Azken-agurra (El postrer adiós)	176

UDAZKEN

Biotza Jaunagan (Mi corazón en el Señor)	180
Bide biak (Los dos caminos)	182
Benetako zoriona (La verdadera felicidad)	184
Betiko oroipenetan (En mis recuerdos perennes)	186
Orreaga (Roncesvalles)	188
Gizon artoa (El hombre soberbio)	190
Suri-tantak (Gotas de lluvia)	192
Zorion-gogoa (Deseos de felicidad)	194
Zeru-lurren artean (Entre el cielo y la tierra)	196
Izadiaren erdian (En medio de la Naturaleza)	198
Il, baiña bizi (Morir, pero vivir)	200

XVI-XVII'garren mendeko bizkaierazko maitasun-olerki bat	202
Una poesía amorosa bizkaina del siglo XVI-XVII	203

Eritziak (Críticas)	205
----------------------------	-----



KEREXETA'REN IDAZLANAK

1. **ORBELAK** (1959) (Agortuta).
2. **BITARGI** (1960) (Agortuta).
3. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA** (lau Ebanjelioak alkartuta: 1960-1961) (Agortuta).
4. **APOSTOLUEN EGIÑAK** (1961) (Agortuta).
5. **EGUNEROKO MEZA** (Missale Romanum: 1963) (Agortuta).
6. **GOGARTEAK** (Aita Basabe-Kerexeta: 1963).
7. **DIDAJE** eta **APOSTOLUEN SINISKITZA** (1965) (Agortuta).
8. **APOSTOLUEN EGIÑAK ETA IDAZKIAK** (Novum Testamentum: 1955) (Agortuta).
9. **ALKARTASUN BARRIKO ITZAK ETA GAIK** (1965) (Agortuta).
10. **ARGI-BIDE TXIKIA** (Zugasti-Kerexeta: 1965).
11. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BERRI ONA** (lau Ebanjelioak alkartuta, gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1966) (Agortuta).
12. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (lau Ebanjelioak: 1966) (Agortuta).
13. **ITUN BERRIA** (Novum Testamentum, osorik, gipuzkeraz: Orixe-Kerexeta-Zugasti: 1967; 2'garren argitarapena: 1974).
14. **SALMUTEGIA** (1967) (Agortuta).
15. **SALMUDIA** (gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1968).
16. **UMEEN BIBLIA** (1969; 2'garren argitarapena: 1974) (Agortuta).
17. **UMEEN BIBLIA** (gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1969) (Agortuta).
18. **DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO VASCO** (cinco volúmenes: 1970-1971-1972 y 1974). 1.990 pta. ale bakotxa.
23. **GURE SALBAZIÑO-EGINTZA** (Alkartasun Barria: AsceapPC'na: 1972) 90 pta.
24. **ALKARTASUN BARRIA** (Novum Testamentum, osorik; 2'garren argitarapena: 1972) 275 eta 375 pta.
25. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (2'garren argitarapena; euskeraz eta erderaz: 1973) 275 eta 375 pta.
26. **EBANJELIO ALKARTUAK** (1973) (Agortuta).
27. **KRISTAU-IKASBIDEA** (4'garrena) (1974) 50 pta.
28. **ELIZ-GURASO APOSTOLIKUAK** (Padres Apostólicos) (1975). (1976'garren urtean Baiona'n Agirre-Saria irabazi ebana) 300 pta.
29. **EUSKAL-BIBLIA** (1976) 800 eta 1.200 pta.
30. **MEZAKO IRAKURGAIK EUSKAL-BIBLIAN** (1976) 50 pta.
31. **ASTEGUNETAKO MEZA-OTOITZAK ETA JAINKO-ERRIAREN OTOITZA** (1977) 300 pta.
32. **DICCIONARIO EUSKERICO** (1977) 100 pta.
33. **IPARRAGIRRE'REN BIZITZA** (1978) 640 pta.
34. **GERNIKA'KO BESTE ARBOLA** (1979) 640 pta.
35. **ORBELAK, BITARGI** (2'garren argitarapena), **UDAZKEN** (1980).

JAIME de KEREXETA

San Roque, 24. Tel. 6820012

Elorrio (Bizkaia)